



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2018ko maiatzak 3
Ordua: 19:00 – 20:05
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Alazne Lafragua Ureta
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00tan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta erabaki hauek hartu dira:

1.- ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO HITZARMENA ONARTZEA.

“2018KO APIRILAREN 26AN EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Ikusirik eskuduntzak delegatzeari eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa agintzeari buruzko Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren arteko Hitzarmena, Arabako Lurralde Historikoko udalerrri guztiei proposatua harekin bat egin dezaten.

Ikusirik Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko 7/85 Legeko 47.2.h puntuan ezarritakoaren arabera kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela funtzioak edo jarduerak beste herri administrazio batzuetara eskualdatzeari buruzko akordioak hartzeko.

Ikusirik Hitzarmeneko testua eta hartako zioen azalpena, 2018ko apirilaren 26an egindako Herritarren Informazio Batzordeak Udalbatzari AKORDIO hau har dezala proposatu dio:

Udalbatzaktaldeko kideenaldeko botoekin etataldeko kideenaurkako botoekin etataldeko kideenabstentzioekin ADOSTU DU:

LEHENA.-Eskuduntza delegatzea eta Arabako Foru Aldundiari agintzea etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa.



BIGARRENA.- Arabako Foru Aldundi Txit Gorenaren eta Artziniegako Udalaren artean sinatzeko lankidetzaz-hitzarmeneko testua onartzea, bi erakundeen artean etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketaren agindua formalizatzeko, zeinaren testu bakarra eranskin modura atxikitzen baita.

HIRUGARRENA.- Akordio honen ziurtagiri bat Arabako Foru Aldundira igortzea, kudeaketaren agindua onar dadin hitzarmena sinatu aurretiko urrats modura

EREDUA

ARABAKO LURRALDE BATZORDEA 2018ko MARTXOAREN 7a **FORU ALDUNDIAREN ETA ARTZINIEGAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA** **ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ESKUMENAK ESKUORDETZEKO ETA** **KUDEAKETAREN ARDURA EMATEKO.**

Ongizate Estatuaren zutabe diren Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eskubidearen jabe diren pertsona guztiek gizarte-prestazio eta -zerbitzuen eskuragarritasuna eta horietarako aukera izango dutela bermatzera behartzen ditu aginte publikoak. Eskubide hori betetzeko baldintzak lege horretan bertan zehazten dira, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ere, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek 2016ko uztailearen 22an berretsia Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren markoaren baitan.

Legearen 22. artikulua arabera, Etxerako Laguntza Zerbitzua ahalmen eta funtzio ugari dituen udal-eskumena da, Lurralde Historikoko udal gehienek betetzeko oso zailak direnak. Izan ere, tamaina txikiagatik eta biztanle kopuru urriagatik ez daukate zerbitzu hori modu egokian emateko beharrezkoak diren azpiegiturak eta horrek eragin lezake Lurralde Historiko guztian Etxerako Laguntza Zerbitzuaren intentsitatea eta kalitatea antzekoa ez izatea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 31. artikulua dioenaren arabera, Foru Aldundiei dagokie udal eskumenekoak diren zerbitzuak lurralde guztian modu oso eta egokian eman daitezkeen bermatzea, eta testu bereko 36. artikulua arabera Foru Aldundiek, besteak beste, udal zerbitzuei laguntzeko eginkizuna dute arlo juridikoan, ekonomikoan eta teknikoan. Aurrekoa eta baliabideen kudeaketan eraginkortasun handiagoa kontuan hartuta, gomendagarria da Arabako Foru Aldundiak udal eskumeneko zerbitzu hori ematen parte hartzea, eta horrela gainera oraingo egoerari jarraipena emango zaio, orain arte zerbitzu hori Arabako Foru Aldundiak eman izan baitu.

Horregatik, udal gabeziak azpiegiturretan integratzearen, Lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak finkatzearen eta Lurraldeko herritarrek gizarte-zerbitzu hau intentsitate eta kalitate berdinez eta baliabide ekonomikoaren exekuzio eta kudeaketa eraginkor eta bikainaz jaso dezaten lortzearen, komenigarria da Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten Udalen artean lankidetzaz-marko bat antolatzea, udal eskumenekoak diren zenbait eginkizun betetzeko eta zerbitzua modu integralean emateko.

Lankidetzaz horrek bere legezko babesa du administrazioen arteko lankidetzaz-, elkarlan- eta laguntza-oinarrietan, besteak beste ondoko arau hauetan jasotakoak: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 140. artikulua eta hurrengoak, eta Hitzarmen honetan gauzatutako Gizarte Zerbitzuen Legeko 43. artikulua eta hurrengoak.

Etxerako Laguntzarako gizarte-zerbitzuaren gaian udal eginkizunek duten izaera ezberdinak beharrezko egiten du lehen aipatutako 40/2015 Legeko 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera formalizatutako Hitzarmen honek bi lankidetzaz-formula jasotzeko: 1) gizarte-prestazioarekin eta prezio publikoaren diru-bilketarekin ere zerikusia duten administrazio-prozeduren tramitazio eta garapenari dagozkion eginkizunak betetzeko eskumenak eskuordetzea, eta 2) zerbitzua bera ematea dakarren beste eginkizun batzuen



kudeaketaren ardura ematea. Bi lankidetzak-formulak Hitzarmen bakar batean biltzen dira horien eraginkortasuna, balioa eta indarraldia elkarren artean lotuta gera daitezten.

Foru-lankidetzaren oinarrietako bat Arabako udalari guztietan zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea berdintsua izan dadin sustatzea denez, beharrezkoa da zerbitzuaren eta bere prezio publikoen Araudia berdina izatea hitzarmena sinatzen duten Udal guztietarako. Horrekin, gainera, eskumenak eskuordetzea betetzea ahalbidetuko da, eta horregatik zerbitzuaren eta bere prezio publikoaren Araudia Hitzarmenaren eranskin modura jasotzen da.

Hitzarmen hau aplikatuko da berau sinatzen duten Lurralde Historikoko udalerrietan, ondoren zehaztutako klausulen arabera.

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea da Artziniegako Udalak Etxerako Laguntza Zerbitzuari dagokionez dituen eskumenak Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea eta gai horren kudeaketaren ardura Arabako Foru Aldundiari ematea zerbitzu hori osorik eman dezan.

1.2 Hitzarmen honetatik kanpo gelditzen dira Etxerako Laguntza Zerbitzuaren informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazioari buruzko udal eginkizun eta eskumen guztiak. Izan ere, horiek denak oinarritzko gizarte-zerbitzuei dagozkenez, udalak berak edota Kuadrillak eskainiko dituzte.

Bigarrena. Zerbitzuaren Araudia eta Hitzarmenaren eraginkortasuna.

2.1 Arabako Foru Aldundiak eta Artziniegako Udalak konpromisoa hartzen dute Etxerako Laguntza zerbitzu honen eta dagokion Zerga Ordenantzaren Udal Araudia onartu eta hilabeteko epean sinatzeko Hitzarmen hau. Araudia eta Ordenantza hitzarmen honi lotzen zaizkio I. eta II. Eranskin modura, hurrenez hurren.

2.2 Araudi hori onartuta eta indarrean egotea nahitaezko baldintza da Hitzarmen hau eraginkorra izateko eta indarrean egoteko. Artziniegako Udalak erabakiko balu prezio publikoari dagokionez Zerga Ordenantzan (hitzarmen honen II. eranskina) aurreikusitako zerga-salbuespen edo -hobariez gain bestelakorik ezartzea, bere kontura izango dira zenbateko horiek.

Hirugarrena. Eskumenak eskuordetzearen irismena.

3.1 Artziniegako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetzen dizkio Etxerako Laguntza Zerbitzuari dagozkion ondoko eskumenak:

- a. Erabaki-proposamena bideratzea (udalaren gizarte-zerbitzuek prestatutakoa), zerbitzu hori ematearekin zerikusia duten prozedura administratibo guztiak amaitu arte, horretarako beharrezkoak diren erabaki guztiak hartuz eta, bereziki, prestazio hori jasotzeko eskubidea onartu, baliatu, eten edota amaitzeari buruzkoak, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudian ezarritako baldintzetan.*
- b. Zerbitzuaren prestazio egokia emateko beharrezkoak diren aplikazio-jarraibideak eta -irizpideak finkatzea, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudian jasotzen den moduan.*
- c. Zerga Ordenantzan zerbitzuaren prestaziorako ezartzen diren prezio publikoak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, Foru Ogasunen Araudian eta, modu osagarrian, Arabako Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauan jasotakoarekin bat.*
- d. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren gaian zehapenak ezartzeko ahalmena betetzea eta legez beharrezkoak diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.*
- e. Eskuordetutako eskumenak betetzean erabaki diren ekintzen aurka jarritako administrazio-helegiteak erabakitzea.*

3.2 Arabako Foru Aldundiari dagokio eskumen hori eskuordetuta betetzea, indarrean dagoen Araudiarekin bat eta, bereziki, bigarren klausulan aipatu den zerbitzuaren eta bere prezioaren Araudiarekin bat.

Laugarrena. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren kudeaketaren ardura ematearen irismena.



4.1 Artziniegako Udalak Arabako Foru Aldundiari Etxerako Laguntza Zerbitzuaren prestazio integralaren ardura ematen dio eta horrek onartu egiten du.

4.2 Kudeaketaren ardura-emate hori, eta, kasua balitz, beste prestazio osagarri batzuen, modu zuzenean ala zeharka egin ahal izango du Arabako Foru Aldundiak, legez ezarritako baldintzetan egin daitekeen kontratazio baten bidez, eta horren gehienezko indarraldia hitzarmen honen indarraldiarekin bat etorritz.

Bosgarrena.- Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

5.1. Hitzarmen honetan jasotako estipulazioen jarraipena, kontrola eta betetze-maila ziurtatzeko eta haren interpretazioa egiteko sortu da Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

Hauxe izango da Gobernu eta Koordinazio Batzordearen osaera:

Udaletako sei (6) ordezkari: Aiarako bi, Araba Ipar-ekialdeko bi eta Araba Hegoaldeko bi.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte-zerbitzuen Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2.- Gobernu eta Koordinazio Batzordea arduratuko da bere antolamendu- eta funtzionamendu-araudia egiteaz.

5.3.- Hitzarmen honetan eta batzordearen antolamendu- eta funtzionamendu-araudian aurreikusita ez dauden kontuetan, sektore publikoaren erregimen juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutako kide anitzeko organoen funtzionamendu-arauak hartuko ditu aintzat Gobernu eta Koordinazio Batzordeak.

Seigarrena.- Gobernu eta Koordinazio Batzordearen eginkizuna

6.1. Honako hauek dira Gobernu eta Koordinazioaren eginkizunak:

- a. Hitzarmen honen plangintza, koordinazioa, jarraipena, kontrola, informazioa eta interpretazioa egitea.
- b. Hitzarmen honetan egon daitekeen edozein aldaketaren edo berrikuntzaren berri ematea.
- c. Hitzarmen honetan berriaz jasotako eskudantziak betetzea.

6.2.- Urtean behin, honako hauen berri emango zaio Gobernu eta Koordinazio Batzordeari:

- a. Hitzarmenaren garapen-egoeraren eta ekitaldian izandako gorabeherarik garrantzitsuenen berri.
- b. Arabako Foru Aldundiak sinatu beharreko kontratuen berri, 600.000 €-tik gorakoak direnean.
- c. Erakunde sinatzaileek helarazten dizkioten proposamen, kexu eta iradokizunen berri.

6.3.- Urtean behin, Arabako lurralde historikoko udalekin etxerako Laguntza Zerbitzua emateko sinatu diren hitzarmenen ondorioz izan den jardueraren berri emango duen txostena aurkeztuko da Arabako Gizarte Zerbitzuen Erakunde-artekeko Mahaian.

Zazpigarrena.- Eskumen eskuordetuak eta kudeaketaren mandatua gauzatzea

7.1.- Eskumenak eskuordetzeak ez du esan nahi titulartasuna lagako denik; izan ere, titulartasunak beti udalarena izaten jarraituko du, erabilera eskuordetu baino ez baita egingo.



7.2.- Urtean behin, gutxienez, eskumen eskuordetuen eta agindutako zerbitzuaren garapenaren berri emango dio Arabako Foru Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzordeari.

7.3.- Artziniegako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio Arabako Foru Aldundiari eskumen eskuordetuen eta zerbitzu-ematearen garapenari buruzko informazioa. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen saileko foru diputatuari. Arabako Foru Aldundiak gehienez hogeit hamar egun balioduneko epean bidaliko du eskaturiko informazioa, eskabidea Arabako Foru Aldundian erregistratzen den unetik zenbatuta.

Zortzigarrena.- Araubide ekonomiko-finantzarioa.

Beti ere, gaur egungo erabiltzaile bakoitzaren gastu publiko arrunta Arabako Foru Aldundiak finantzatu beharreko kopurutzat bermatuko da.

Bederatzigarrena.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoen ardura izango da hitzarmena eta bera jorratzean edo beraren ondorioz egindako ekintza eta erabakiak bide judizialek berrikustea.

Hamargarrena.- Iraupena

10.1.- Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, betetzen hasten den unetik hasita, hamalagarren klausularen harira bigarren klausulan aurreikusitakoari jarraikiz. Epealdi hori amaitu ondoren, beste horrenbeste denboraz luzatu ahal izango da.

10.2.- Bi aldeetatik batek ere ez badu adierazten —hitzarmenaren indarraldia amaitu baino sei hilabete lehenago, gutxienez— ez duela luzatzeko asmorik, automatikoki luzatuta dagoela joko da.

10.3.- Udalen batek, edozein arrazoi dela eta, hitzarmena ez luzatzea erabakiko balu, horrek ez du esan nahi udal horren eremuko gainerako udalek ere amaitutzat jo beharko dutenik.

Hamaikagarrena.- Hitzarmena ezeztatzeko arrazoiak.

11.1.- Hona hitzarmena ezeztatzeko arrazoiak:

- a. Bi aldeek adosten badute.
- b. Bi aldeetako batek salatzen badu, salaketa horren dakarren ezeztapena indarrean sartu baino sei hilabete lehenago gutxienez.
- c. Gobernu eta Koordinazio Batzordean hitzarmen honen funtsezko klausulak interpretatzean adostasunik ez badago.
- d. Hitzarmenaren ondoriozko funtsezko betebeharrak betetzen ez badira. Hitzarmena ezeztatzeko arrazoi hori gauzatzeko, hitzarmena ezeztatzeko asmoa adierazi duen erakundeak, aurretiaz, ezeztatzeko arrazoi horren eta hitzarmena bertan behera uzteko asmoaren berri emango dio Gobernu eta Koordinazio Batzordeari. Jakinarazpen hori egin ondoren, gehienez hamabost egun balioduneko epean bilduko da batzordea ezeztapenaren jatorriari buruzko txostena emateko, beste aldea entzun ondoren. Batzordeak txostena eman ondoren, erakunde interesdunak dagokion erabakia hartuko du.
- e. Hitzarmena sinatu eta gerora, hitzarmena betetzeko ezintasuna sortzen bada. Adibidez, udalak etxerako Laguntza Zerbitzuari buruz erabakitakoa (hitzarmen honen



bigarren klausulan xedatutako terminoetan eta salbuespenekin) ez den beste araudi bat onartzen edo aldatzen badu.

f. Hitzarmenaren indarraldia eta luzapen-aldia amaitzen denean.

11.2.- Hitzarmena amaitu edo ezeztatu ondoren, haren kitapena hasiko da. Dagokion udala entzun ondoren, Arabako Foru Aldundiak formulatu eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onartuko du.

11.3.- Arabako Foru Aldundiak hitzarmena bete ez duelako, Artziniegako Udalak hitzarmena ezeztatzea erabakitzen badu, Arabako Foru Aldundiak sor litezkeen kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

11.4- Artziniegako Udalak bere erabakiz hitzarmena ezeztatzen badu, ordea, zerbitzua zuzenean edo zeharka emateagatik Arabako Foru Aldundiak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak bereganatu beharko ditu udal horrek, edota bestela, kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

Hamabigarrena.- Datuen babesa.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraikiz, Artziniegako Udala da erabiltzaileen fitxategiaren eta datu pertsonalen tratamenduaren titularra. Horregatik, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua betez, erabiltzaileak identifikatzeko eta hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak egiteko Arabako Foru Aldundiari emango zaizkion datu pertsonalak hitzarmenaren indarraldian baino ez dira erabiliko, eta agindutako betebeharrak betetzeko soilik. Arabako Foru Aldundiak ez ditu hitzarmenean jasotakoa ez den beste ezertan erabiliko. Era berean, honako betebeharrak ere onartzen ditu: eskuratzen dituen datuen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko hartu beharreko segurtasun-neurri guztiak hartu eta zaintzekoa eta, bereziki, 15/1000 Lege Organikoa garatzeko araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan (79. artikulutik 94.era bitarteko artikuluetan, bi horiek barne) ezartzen diren oinarrizko segurtasun-neurriak ezartzekoa. Ildo beretik, hitzarmena amaitzen denean, XXXko Udalari itzuliko dizkio jarduera egiteko eskuratu dituen datu pertsonalen euskarri guztiak.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenari atxikitze prozedura.

Hitzarmen honi atxikitze, udalaren osoko bilkurak onartu beharko du, klausula guzti-guztiak berariaz onartuta eta aurretiaz hitzarmen honen bigarren klausulan aurreikusitako araudia ontzat emanda.

Hamalauugarrena.- Argitaratzea.

Esku hartzen duten administrazio guztietako organo eskudunek onartu ondoren, hitzarmena ALHAOn argitaratuko da eta biharamunean sartuko da indarrean.



onartuta, beno bada, harremana arautu behar zen apur bat, egun etxez etxeko zerbitzua nola ematen ari den, Aldundia ari da ematen, eta zerbitzua hainbat urtez luzatu zen. Eudelen batzorde tekniko batean Foru Aldundiaren aldetik egiten jarraitzeko, zerbitzua ematen jarraitzeko, aukera artikulatzeko modua landu da, beraz Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen honetan aurkezten da proposamena. Zerbait esan nahi baduzue.

Alazne Lafragua Ureta: Alkatetza honetatik hitzarmen hau eratzeko prozesua jarraitzeko ahalegina egin bada, jakingo du hasiera-hasieratik Aldundiak ez duela beste alternatibarik eman, bera sinatzea baino. Ez du beste alternatibarik eman, zerbitzu hau ahalik eta askatasun gehienarekin kudea dezala baimentzea ez bada, hau da, sinatu egiten da ala ezer ez. Politika bera jarraitzen da uren partzuergoekin edo zaborrekin. EH-Bildu taldetik uste dugu badirela beste aukera batzuk, eta hala uste duen edozein Udalak bere eskumenekoa den zerbitzu baten kudeaketa beregain hartzeko aukera izan behar du eta, horretarako, gaur hemen, eztabaidatu beharko genuke ea Udal honek hitzarmen horrekin bat egin nahi duen ala beste alternatibaren bat begiratu nahi duen. Haatik, gaur ez dugu aukera hori. Nahiz eta Eudelen adostu zen Aldundiari eskatzea mahai gainean ipin zezala, zuria beltzaren gainetik, nola finantzatuko lukeen zerbitzua baldin eta Udal batek hitzarmen hau ez sinatzea erabakiko balu, horixe da gaur hemen eztabaidatu beharko genukeena, gaur hemen egon behar zen proposamen bat, eta bertan zehaztu beharko lirateke nola egingo zatekeen kudeaketa horren trantsizioa, eratorritako balizko erantzukizunak eta Aldundiaren eta hitzarmen hau sinatzen ez duten Udalen arteko harremana. Finean, gaur bi aukeren artean hautua egiteko aukera izan beharko genuke, eta gaur aurkezten dena zera da, hartu ala kito. Onarpenerako gaur aurkezten zaigun hitzarmen honek hurrengo legealdia hipotekatzen du, ezar nahi den edozein hobekuntza ekidinez. Hitzarmenak ez du barneratzen, Udalarentzat zehapena eragin gabe, hartatik askatzeko modua. Ezeren bermea ez den hitzarmen bat da, eta Aldundiko dagokion gobernuaren borondate politikoaren eskueran uzten da finantzaketa hori denboran mantentzen dadila. Hitzarmenak argi uzten du Aldundiak egungo erabiltzailearen arabeko gastu arrunt publikoa finantzatuko duela soilik. Zer gertatuko litzateke, esate baterako, MAZ zerbitzuko langileek beren lan-baldintzak hobetzea lortuko balute merezi duten eran? Nork hartuko du beregain gainkostu hori? Nork hartuko du horren erantzukizuna? Halaber, ez da bermatzen lau urte hauen amaieran Aldundiak ez dezala hartu hitzarmena hausteko aldebakarreko erabakia eta Udalek korrika eta presaka kudeaketa beregain har dezatela, finantzaketa murriztu batekin. Alkatetza honen erantzukizuna eskatu eta deitzen dugu hitzarmen hori bazter dezan Aldundiak bere konpromisoa bete eta haren aurreko alternatiba bat aurkezten duen arte, eskumen hori Udalek bere kabuz kudeatzeko aukera barneratuz, eta argi utz dezala hitzarmen hau ez sinatzeak ez duela diskriminaziorik eragingo sinatzen duten Udalen aurrean. Aldundiak alternatiba hori aurkezten ez duen bitartean uste dugu Udal honen betebeharra dela Aldundia presionatu eta hari eskatzea eta Eudeli aurkez dezaten, modu horretan, askatasun osoz eztabaida dezagun Udal honetan nahi dugun kudeaketa-ereduari buruz. Bestenaz, kontrako botoa emateko aukera baino ez zaigu geratuko.

Alkatea: beno, puntu honetan soilik esan hau Aldunditik igortzen den proposamen bat dela, eta bertan, halaxe da, kudeaketa-agindu bat jasotzen dela, aspaldidanik ematen den zerbitzu bat dela, ez dakit beti Arabako Foru Aldundiaren eskutik, Arabako udalerrri guztietan Gasteizko Udalean izan ezik, bertan zerbitzua modu unitarioan ematen baita. Jakina, eskumena Udalarena da, eta hala nahi duen Udalak, bada, Udalak hala nahi badu zerbitzua eman ahalko du. Araudi bat eta ordenantza bat onartu behar ditu. Eta zerbitzua lizitatu behar du. Baina zerbitzua nahiko ongi ari da funtzionatzen, eta ez dirudi zentzuzko inolako arrazoirik dagoenik Aldundiak zerbitzua ematen jarrai ez dezan eta kudeaketa Aldundiari agintzeko. Horregatik ekarri da hitzarmeneko testua, Eudelen landu den testua dena, non talde politiko guztiek parte hartzen duten, eta onarpenerako ekartzen den testua da, eta Arabako beste udalerrri batzuetan lantzen ari diren testua da. Beste ezer aipatu nahi ez baduzue...



Bozkatu egin da:

Kontran:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

2.- ETXEZ ETXEXO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEKO ARAUDIA ETA SARBIDE-BAREMOA ONARTZEA.

“2018KO APIRILAREN 26AN EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Ikusirik EUDEL eta AFAk eraturako etxez etxeko laguntza Zerbitzua arautzeko Udal Erregelamendua, Herritarren Batzorde honek uste du aurrez aipaturako legezko Arauetan barneratzen diren beharrezko betekizunak betetzen direla eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa arautzen duen Ordenantzan ezarritako tarifa eta kuotak bat datozela zerbitzua ematek eratorritako balizko kostuekin, eta Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.d) eta 49. artikuluetan xedaturakoaren arabera, apirilaren 26an egindako Herritarren Informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzak hartu du hurrengo

AKORDIOA

LEHENA. *Etxez etxeko laguntza Zerbitzua arautzeko udal Erregelamenduari hasierako onarpena ematea, legezko kide kopuruaren aldeko botoarekin (5), jarraian jasotzen den idazketarekin bat etorritz:*

LEHENENGO TITULUA

1. Artikulua.- Xedea

Araudi honen helburua da Etxerako Laguntza Zerbitzua arautzea udalerrri honetan: Artziniega

2. Artikulua.- Ezarpen-eremua

Araudi honetan zehazten den zerbitzua honako udal mugarte honetan emango da Artziniega.

3. Artikulua.- Etxerako Laguntza Zerbitzuaren definizioa

Etxerako Laguntza Zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzua da, erabiltzaileei beren etxean geratzen laguntzeko, bertan moldatzeko eta komunitate-inguruan integratzeko laguntza emanez, betiere isolamendu-egoerak saihestuta.

4. Artikulua.- Etxerako Laguntza Zerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen helburuak honako hauek izango dira:

- a) *Norberaren autonomia mantentzea edo hobetzea, erabiltzaileen makaltzea prebenitzea eta haien autonomia-galera konpentsatzea, laguntza partziala edo osoa emanez, beren zaintza pertsonalerako premiazkoak diren eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak edota eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egin ditzaten.*



- b) Bideragarria denean, erabiltzaileei beren etxean ahalik eta denbora gehien geratzeko aukera ematea, bizi-kalitate onargarria izan dezan, ostatu-zerbitzu edo egoitza batean sartzea atzeratu edo saihesteko.
- c) Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua indartzea.
- d) Erabiltzaileari laguntza emateko sare sozio-familiarra osatzen duten zaintzaileei laguntza ematea eta arreta emateko lana partzialki liberatzeko aukera ematea, beren garapen pertsonal, profesional zein sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.
- e) Erabiltzaileari normalean arreta ematen dion pertsona zaintzaile nagusia aldizka ordezkatzeko, hura aldi baterako izan ezean.
- f) Beste zerbitzu batzuk erabiltzeko premia eskatuko luketen beharrianak antzematea.
- g) Erabiltzaileak komunitate-ingurunean integratzen laguntzea, isolamendu- edota bazterketa-egoerak saihesteko.
- h) Adingabekoen zaintza osatzea, gurasoek edo tutoreek zaintza egokia ezin dietenean eman.
- i) Hainbat arrazoi psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisialdi-egoeran dauden familien bizikidetzagiroa hobetzea, eta arrazoi horiek sortutako arriskuak prebenitzea.

• **BIGAREN TITULUA. ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA**

I. KAPITULUA.- ZERBITZUAN SARTZEN DIREN ETA KANPOAN GERATZEN DIREN LAGUNTZAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK

5. Artikulua.- Sartzen diren eta kanpoan geratzen diren laguntzak

5.1.- Honako laguntza hauek zerbitzu barruan eskainiko dira:

I.- Informazioa: erabiltzaileei beren eskubideen eta zerbitzuaren gaineko ezagutza egokia eta nahikoa izan dezaten behar bezala eta behar den momentuan informatzea.

II.- Jarraipenaren balorazioa: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak egitea, sakontasun handiago edo txikiagoarekin.

III. Etxeko Laguntza Zerbitzua: erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzeko zerbitzua, eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egin ditzaten, bereziki elikadurarekin, arroparekin zein bizi diren etxebizitzako instalazioen mantentze-lanen garbiketarekin lotutako lanak, haien antolaketa errazteko, eta dagokionean, lan horiek egiteko behar diren gaitasunetan trebatzeko.

- a) Elikadurarekin lotutakoak:
 - Otorduak prestatzen laguntzea / Otorduak planifikatzen eta prestatzen laguntzea, erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea barne
 - Elikagaiak erostea
 - Erabilitako tresnak garbitzea eta lehortzea
- b) Arroparekin lotutakoak:
 - Etxean arropa garbitzen laguntzea / Arropa etxean garbitzea
 - Arropa eskegitzea
 - Arropa atontzea
 - Arropa antolatzea eta gordetzea
 - Arropa etxean lisatzea eta tolestea.
 - Arropa erosten laguntzea / Arropa erostea
 - Erabilitako elementu guztiak prestatzea eta gordetzea
- c) Etxebizitzako instalazioen mantentze-lanekin lotuta:
 - Etxea txukun jartzea
 - Azalera produktu egokiekin garbitzea
 - Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
 - Hautsa kentzea
 - Zoruak garbitzea eta aspiragailua pasatzea
 - Gortinak eta leihoak irekitzea, aireztatzea
 - Bainu-gela garbitzea
 - Sukaldea garbitzea
 - Leihoetako kristalak garbitzea



- Zaborra kontrolatzea eta jaistea.
- Ohea egin, oheko arropa aldatu eta zikina kentzea.
- Jabeen erkidegoko espazioak garbitzea.

IV.- Arreta pertsonala: erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzeko zerbitzua, eguneroko bizitzan beharrezkoak diren oinarrizko jarduerak zein beren ingurunearekin lotuko dituzten jarduera instrumentalak egiteko; hori horrela, familia- eta komunitate-ingurunean sartzeko aukera emango zaie. Era berean, eta hala badagokio, horiek egin ahal izateko premiazko gaitasunetan trebatuko dituzte.

- Garbitasun eta higiene pertsonala, norbere eta oheko arropa aldatzea barne (baita laguntza teknikoak ere, horiek izanez gero, azazkalak zaintzea, bizarra moztea, ilea garbitzea, azala hidratatzea, ahoko higiena eta arropa aldatzea).
 - Janzten eta eranzten laguntzea
 - Eguneroko arropa prestatzea
 - Jaten laguntza ematea
 - Edaten laguntza ematea
 - Janaria berotzea
 - Norbere garbitasun eta higienerako erabilitako objektuak garbitzea eta jasotzea, bai eta jaten zein edaten laguntza ematekoak ere.
- a) Inguruan mugitu eta moldatzearekin lotutako jarduerak:
- Jaikitze, oheratzeko eta eserlekutik altxatzeko laguntza baliabide teknikoak erabiliz, halakorik izanez gero.
 - Etxe barruan noraezean dabiltzanean laguntzea, baliabide teknikoak erabiliz halakorik izanez gero (bainugelara laguntzea, gela batetik bestera mugitzen laguntzea).
- b) Osasuna mantentzearekin lotutako jarduerak:
- Medikuek agindutako aho bidezko medikazioa erosi, hartzen dela egiaztatu eta horren jarraipena egitea.

Orokorrean, aurreko jarduera guztiak, elementuak prestatzea, edota aurreko jardueren ondoriozko jarduera guztiak.

V.- Gizarte-laguntza: honen bidez, erabiltzaileak, profesional kualifikatu baten laguntzari esker, laguntza-harreman batean parte hartzen du, erabiltzailea modu autonomoan hobeto moldatze eta gizarteratze aldera.

- Izaera pertsonaleko kudeaketetan laguntzea, familiaren babes nahikoa ez dagoenean.
- Medikuen hitzorduak kontrolatzea eta horien jarraipena egitea, familiaren babes nahikoa ez dagoenean.
- Laguntza ematea etxetik lekualdatzean, baina betiere etxe inguruan (garraioa, eguneko zentroak, osasun-zentroak, komunitate-ekipamenduak, etab.).

VI.- Beste hainbat jarduera osagarri edo ezohiko

Egoera berezietan, eta izaera mugatuarekin, beste hainbat jarduera eman ahalko dira, baldin eta zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat hartzen badira:

- Zaintzaileen atsedendia
- Paseoak
- Zerbitzu normalizatua ezarri aurretik higiene-arazo larriak dituzten etxebizitzetan garbiketa orokorrak egitea.
- Egoera berezietan, beste hainbat jarduera eman ahalko dira, baldin eta zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotzen badira.

6.2.- Zerbitzu honetan honako jarduera hauek baztertzen dira:

- Etxebizitzan bertan bizi diren eta zerbitzuaren onuradunak ez diren pertsonen arreta pertsonala ematea.
- Etxeko lanak egiteko laguntza ematea, baldin eta etxe horretan lan horiek egiteko gaitasuna duten pertsonak bizi badira.



- Osasun-izaerako jarduerak gauzatzea, baldin eta horiek egiteko langileek berariazko prestakuntza behar baldin badute (injekzioak jartzea, zundak erabiltzea, ultzeren eta eskaren tratamendua egitea nahiz medikazioa ematea, berariazko ezagutzak eta antzeko beste ezagutza batzuk eskatzen dituztenak).
- Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (margotzea, papereztatzea...)
- Lehenengo atalean eta seigarrenean zehaztu gabeko garbiketak)
- Zerbitzu teknikoek egindako txostenean aurreikusi gabeko jarduera guztiak, ezta beste administrazio batzuen eskumenekoak direnak ere.

7. Artikulua.-Etixerako Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Etixerako Laguntza Zerbitzu orokorra emango da onuraduna bizi den etxebizitzan, honako udal barruti honetan.....

Onuraduna senideen artean txandakatuz gero, zerbitzua etxebizitza batean baino gehiagotan eman ahalko da, Araudi honen 9.1 artikuluan aurreikusitako baldintzekin bat.

1) Arreta-egunak

- Orokorrean, zerbitzua astelehenetik ostiralera arte emango da, medikuaren aginduaren arabera.
- Balorazio baten arabera, zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan eman ahalko da.
- Jaiegunak izango dira Eusko Jaurlaritzak ofizialki hala onartuak dituenak.

2) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzua emateko aldi baterako mugak erabiltzaileen premien bananako ebaluazioaren arabera ezarriko dira.

Asteko zerbitzua gutxienez 30 minutukoa izango da. Asteko zerbitzua gehienez hogeitau ordukua izango da, eta 28 ordukua ere izan daiteke, artikuluko horren bigarren paragrafoko 1) puntuan jasotako ezohiko kasuekin bat. Gehieneko ordu-kopuru hori malgutasun handiagoarekin banatu ahal izango da, baldin eta profesionalak beharrezkoa hartzen badu etxean dagoen erabiltzailearen zaintzak osatu edota ordezkatzeko.

3) Arreta-ordutegia

Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da eta goizeko 07:30etik gaueko 21:30era emango da.

Batzuetan, zerbitzua emateko ordutegia zabalduko da ezarritako ordutetatik kanpo, medikuaren balorazioarekin bat.

- Laguntza pertsonala ematean, ordutegia eskatzailearen ordutegi-ohiturak eta -premiak kontuan izanik ezarriko da.
- Etxe- eta gizarte-laguntza emateko zerbitzuei dagokienez, ordutegiak zerbitzua horiek eskaintzen dituzten langileen ordutegiaren arabera ezarriko dira.

• II KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

8. Artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea:

Zerbitzu honen erabiltzaileak autonomia-galera dutenak edo baztertzeko arrisku-egoeran daudenak, orokorrean, beren profilak bat egin beharko du eguneroko bizitzan oinarritako jarduerak egiteko aldi baterako edo etengabeko Laguntza Zerbitzua behar duten pertsonekin, beren ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitu dezaten.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan, Etixerako Laguntza Zerbitzua eskubide subjektibo gisa aintzat hartzen da mendekotasun-egoeran dauden eta mendekotasuna izateko arriskua duten pertsonentzat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015ko Dekretuak ezartzen duenaren arabera (MBB Mendekotasunaren Balorazio Baremoko puntuazioa 23 eta 24 puntu artekoa).

Etixerako Laguntza Zerbitzuaren hartzaileak honako pertsonak edota familia-taldeak izan daitezke:

- Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak, eguneroko bizitzako jarduera oinarritukoak edota instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.



- *Autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 65 urte baino gehiagoko pertsonak, eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoak edota instrumentalak egiteko laguntza behar dutenak.*
- *Familiarengandik behar duten zaintza eta arreta jasotzen ez dituzten adingabeak.*
- *Zama gehiegi, harreman-gatazka, gizarte-egoera ezegonkorrak edota gaixotasun fisikoaren edota psikikoaren ondoriozko arazoak dituzten familia-taldeak edo pertsonak, eguneroko bizitzako edozer jarduera egiteko babesa nahiz zaintza eta laguntza partziala edo osoa behar dutenak.*
- *Gaixotasun terminal bat duten pertsonak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste pertsona baten laguntza nahitaez behar dutenak.*
- *Zerbitzu honen laguntza jaso dezaketen pertsona edota egoera guztiak, medikuaren balorazioaren arabera.*

9. Artikulua. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Aurrerago adierazitako egoeraren bat izateaz gain, eskatzaileak zerbitzua erabiltzeko honako baldintzak bete beharko ditu:

9.1. Administrazio-baldintzak:

Eskaera egiten den datan, honako udal-barruti honetan erroldatuta egotea,....., eta bertan erroldatuta jarraitzea.

Baldintza horretatik salbuetsita geratuko da familia-txandakatzean dagoena.

9.2. Premiaren baldintzak:

- Laguntza eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoak edota instrumentalak egiteko eskatzea.*
- Helbidean bizitzea, helbide hori norberarena izan edo zaintzaile nagusia den senide batena izan.*
- Erabiltzailea bertan egotea eragozten edo larri zailtzen ez duen helbidea izatea, bai erabiltzailearentzat, bai etxeko laguntzaileentzat arriskurik ez dakarrena.*
- Beharrezkoa izanez gero, Zerbitzuko langilerekin batera, laguntza nahikoa izatea, etxebizitzan baldintza egokietan egoteko.*
- Erakunde sanitarioetan edo soziosanitarioetan etengabeko laguntza eskatzen duen osasun-egoera ez izatea.*
- Dagokion tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun infekziosoa eta kutsakorra edo gaixotasun mentala edukiz gero.*
- Jarrera-nahasmendurik ez izatea edo Zerbitzuko langileari arriskua ekarri dakiekeen jokabiderik ez izatea.*

10. Artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua ezartzen duenaz gain, Etxerako Laguntza Zerbitzuen erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- *Banakako Arreta Programan ezarritakoaren edukira eta intentsitatera egokitutako zerbitzua jasotzeko eskubidea, menpekotasun aitortua duten pertsonen kasuan; eta Arreta Plan Pertsonalizatuan ezarritako zerbitzua jasotzeko eskubidea, menpekotasun aitortua ez duten pertsonen kasuan.*
- *Jardueren programazioan parte hartzea.*
- *Jarduera-orriaren kopia bat izatea, zerbitzua osatzen duten jarduerak eta ordutegi-antolaketa zehaztuta (zerbitzuaren maiztasuna eta esku-hartze bakoitzean erabilitako denbora).*
- *Zerbitzuan aldaketa bat sortu dezaketen egoeren berri ematea, bai eta zerbitzu bera bertan behera utzi edo amaitu dezaketenak.*
- *Zerbitzua EAEko edozer hizkuntza ofizialetan jasotzea.*

11. Artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, Etxerako Laguntza Zerbitzuen erabiltzaileek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- *Zerbitzurako langilearen duintasun-eskubidea erabat errespetatzea.*



- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziatzko gizarte-langileari jakinaraztea, gutxienez 24 orduko epearen barruan, egiaztatutako arazo larrietan salbu, zerbitzuaren prestazioa aldi batean bertan behera uzteko gertakarien edo egoeren arrazoiak.
- Zerbitzua ematen duen entitateari eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziatzko gizarte-langileari jakinaraztea zerbitzua ematean hautematen diren balizko arazo berri.
- Zerbitzuaren prezio osoa edo hobariduna abonatzea, gaitasun ekonomikoa dela eta prezio publikoa ordaintzean salbuespenen bat ezarri daitekeen kasuetan salbu, etxerako laguntza zerbitzuan ezarri daitezkeen prezio publikoen udal araudian aurreikusitakoaren arabera.
- Zerbitzua ematen dieten profesionalei lana erraztea, laguntzea eta behar bezala nahiz begirunez tratatzea.
- Zerbitzua ematean eritasun infekzio-kutsakorrek gertatuz gero oinarrizko gizarte-zerbitzuen erreferentziatzko langileei jakinaraztea, etxeko Laguntza Zerbitzuaren langileek beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Etxean geratzea Etxerako Laguntza Zerbitzuaren langilea zerbitzua ematen ari den denbora, berariazko baimena eta preskripzio tekniko eman ezik.
- Etxerako Laguntza Zerbitzuko langilea etxean eta maila pertsonalean dagozkien zereginak egiteko behar dituzten tresnak eta materialak eskuratzea.
- a) Gizarte-zerbitzuei behar besteko denborarekin informatzea beren egoera sozioekonomikoan edozer aldaketa garrantzitsu gertatuz gero, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzen arabera.
- Medikazioa zaindu beharreko zerbitzuetan: une oro aipatu zerbitzua ematen duen profesionalari zaindu behar den medikazioaren adierazpen argiak eta eguneratuak ematea.

Erabiltzaileak komunikazioak, informazioak eta gainerako eskakizunak berariaz zuzendu beharko ditu, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuaren oinarrizko profesionalek artikulua honetan ezarritako obligazioak bete ditzaten.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez badu, zerbitzua eten edo iraungi egingo da, araubide honetan araututako prozedurarekin bat etorriz.

III. KAPITULUA. ZERBITZUA JASOTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

12. artikulua.- Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzua esleitzeko lehentasuna zerbitzuaren eskatzaile-zerrenda bitartez antolatuko da, eta sartzeko baremoa aplikatetik lortutako puntuazioari jarraituko zaio (I. eranskina)

Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskatzaile-zerrendan sartzen diren pertsonen espedientea berrikustea eska dezakete, behar bezala egiaztatzen badute euren egoeran izandako gorabeherek egina zaien balorazioa alda dezaketela.

13. artikulua.- Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea

Araudi honetan araututako Etxerako Laguntza Zerbitzuaren eskatzaile-zerrendan sartzeko, interesdunak inprimaki normalizatu baten bidez eskatu behar dio eskumena duen organoari. Inprimakiak eskatzailearen sinadura eramango du eta Udalak xede horretarako prestaturik dituen edozein erregistrotan aurkeztuko da, edo erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako eran.

Interesdunak eskaerari uko egin diezaioke prozesuaren edozein unetan, idatziz hala eskatuta. Horren ondorioz, espedientea artxibatu egingo da.

Halaber, gizarte-langileak txostena egin dezake espedientea artxibatze xedez, eskatzaileak edo haren ordezkariak berariaz uko egiten diola adierazten duen idazkirik bada.

14. artikulua. Eskabidearekin aurkeztu beharreko agiriak.

Eskatutako zerbitzuak etxeko lanetan laguntzea baldin badakar edo adingabeak beren kargura dituzten familien arretara zuzentzen bada, eskatzailearen ezkontidearen edo izatezko bikotearen nahiz etxean bizi diren gainerakoek dokumentazioa ere aurkeztu behar da:

Eskabideekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:



- NANaren fotokopia, edo edozein identifikazio-agiri baliokidea.
- Familia-liburua, elkarbizitza-unitatean 18 urtez azpikorik bada.
- Mendekotasunaren eta/edo gutxiagotasunaren balorazioa, hala badagokio, balorazioa beste autonomia-erkidego batean egin izan bada.
- Mediku-txostena, osasun-arazoak izanik mendekotasuna eta/edo desgaitasunaren balorazioa eskatzea ez dagokien pertsonen kasuan.
- Artatu beharrekoa pertsona adingabea bada edo legez edo izatez ezindua bada, ordezkartzaren egiaztatzea (adingabeak: familia-liburua, guraso eta seme-alaben arteko neurriak jasotzen dituen agiria; ezinduak: haren tutore izendatzen duen epaia edo izatezko zaintzaile-agiria, ereduaren arabera).
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak:
- Eskaera egin aurreko lau urteetako ondasun higigarrien eta higiezinen zinpeko aitortpena.
- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergako azken aitortpenaren fotokopia edo, halakorik ezean, aitortpena egitera beharturik ez egotearen Ogasuneko ziurtagiria (azken hori ez da beharko aitortpena egindako azken ekitaldian Araba izan bada zergadun).
- Edozein kontzeptutan egun dituen diru-sarreraren egiaztatzea: pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak (izan publikoak, pribatuak nahiz atzerrikoak), nominak, enpresa-jardueren etekinak, etab.
- Kapital higiezinaren etekinengatik izandako diru-sarreraren egiaztatzea, halakorik izanez gero.
- Banketxetako kontu-egoera eguneratu guztien egiaztatzea, eta kapital higigarrien etekinak.
- Arabako lurraldez kanpo jabetzan diren ondasunen katastro-balioaren eta titulartasunaren egiaztatzea.
- Ezarritako prezioaren hileko ekarpena ordaintzeko banku-erakundea eta kontu korronte zenbakia.
- Gizarte-zerbitzuek interesgarritzat jotzen duten beste edozein agiri.

Eskatzaileak ez badu nahi bere egoera baloratzerik edo ez badu modu frogagarrian egiaztatzen, ulertuko da uko egiten diola bere egoera ekonomikoa aintzat har dezaten, eta beraz, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaindu beharko du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikuluari jarraituz, herritarrek ez dute aurreko agiri horietakorik aurkeztu beharrik izango lehendik ere administrazioak bere esku baditu. Horretarako, ordea, interesdunek eurek adierazi behar dute noiz eta zer organori aurkeztu zioten dena delako dokumentua. Udal edo foru gizarte-zerbitzuek ezin balituzte eskuratu dokumentu horiek, interesdunari berriz eskartzeko eska diezaioke.

Eskaerarekin batera aurkezten den dokumentazioa osatugabea bada edo gaizki badago, eskatzaileari eskatuko zaio atzemandako okerrak zuzentzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa aurkez dezan, 10 eguneko epean. Hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, elkarbizitza-unitateko gainerako kideek, baimena emango dio Udalari eta Arabako Foru Aldundiari datuak egiaztatzeko nahiz biltzeko beharrezko kudeaketak egin ditzaten. Datu horiek, eskatzaileak araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko, eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizunak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko baino ezingo dira erabili.

Datu faltsuak emateak eta datuak ezkutatzeko eskatzailea kanpo geratzea ekarriko du. Horrez gain, beste ardura batzuen erantzule egitea ere ekar dezake.

15. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharren ebaluazioa eta gizarte-txostena nahiz proposamena Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritako zehaztapenei jarraituz egingo dira.

a) PREMIEN EBALUAZIOA

- Eskatzailearen etxebizitzari (etxebizitza ibiltariari, hala badagokio) dagozkion udal gizarte-zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek izapidetu, baloratu eta ebaluatuko dituzte eskatzailearen premiak.



- *Udal gizarte-zerbitzuetako teknikariek aurkeztu izan den dokumentazioa aztertu eta honako alderdi hauek baloratzeko behar diren gestio eta jarduerak burutuko dituzte:*
- *Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Oinarrizko jarduera horien artean daude bere burua zaintzea, jaiki eta oheratzea, janztea, ibiltzea, elikatzea, garbitzea eta esfinterrak kontrolatzea.*
- *Eguneroko bizitzan tresnak erabiliz egiten diren jarduerak egiteko laguntza behar izatea. Esate baterako, elikagaiak eskuratzea eta prestatzea, etxebizitza eta sukaldeko tresnak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua erabiltzea, botikak kontrolatzea, eta etxeko nahiz etxetik kanpoko joan-etorriak egitea.*
- *Familia eta gizarte mailako egoera. Eskatzaileak, bizi den pertsonekin nahiz gizarteko ingurunearekin duen harremana baloratzea, eta baita familiako nahiz gizarte-sareak eskatzailearen beharrei erantzuteko duen gaitasuna eta prestutasuna ere.*
- *Etxebizitzak zer higiene, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintza dituen, eta ingurunean non kokatuta dagoen. Hori guztia kontuan izanda, laguntza teknikoen beharrik dagoen.*
- *Egoera ekonomikoa.*

b) GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA

Udal gizarte-zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek Arretarako Banan-banako Programa prestatuko dute edo, hala badagokio, Laguntza Pertsonalizatua emateko Programa. Horietan, honako hau zehaztuko da:

- *Eskatzaileak zerbitzua erabiltzeko baldintzak eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzen dituen.*
- *Hala badagokio, baldintzetan salbuespen-egoera onar dezaten arrazoitutako proposamena.*
- *Eskatzailearen egoera pertsonala eta familiako nahiz gizarteko egoera. Hala badagokio, elkarbizitza-unitatearen egoera.*
- *Esku-hartzearen onuradunak zein diren, zer zerbitzu mota jasoko duten, zerbitzua astean zenbat orduz eta egunez jasoko duten, eta proposatutako lanen eta zerbitzuaren iraupena zein izango den.*
- *Hala badagokio, baldintzetan salbuespenezko zerbitzuak egotea onar dezaten arrazoitutako proposamena.*
- *Hala badagokio, zerbitzua zergatik ezeztatu den arrazoitzen duen proposamena.*

16. artikulua. Ebazpena

Eskabidea aztertua eta baloratua izan eta gizarte-txostena egina denean, dagokion proposamen tekniko prestatuko da, dagokion organoari aurkezteko. Organo horrek, arrazoitutako ebazpenaz, onartu edo ezetsi egingo du zerbitzua erabiltzeko eskaera.

Ebazpena udal erregistroetakoren batean eskaera jasotzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eten egingo da eskaerak osatzea eskatzen denean, horren jakinarazpenaren eta betetzearen arteko denboran, edo, bestela, emandako epean zehar, edota eskaera egiten duenaren autonomiaren balorazioari buruz Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko txostena eskatu behar denean eta, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusten diren gainerako kasuetan.

Aurreko atalean aurreikusitako epea berariazko ebazpenik eman gabe eta ebazteko betebeharraren kalterik gabe igarota, eskaera ezetsizat jo ahal izango da, interesatuari aukerako berraztertze-errekurtsoa edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzea ahalbidetzearren.

Eskaera onartzen duen ebazpenak honako hauek ere jaso beharko ditu:

- *Hala badagokio, eskaera zerbitzuaren eskatzaile-zerrendan sartzea.*
- *Prestazioa ematea, honako hauek zehaztuta: iraupena, mota, intentsitatea eta zerbitzuaren kostua. Era berean, onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa.*
- *Ebazpen-proposamenak hau ere jasoko du: zerbitzu edo diru-prestazio baterako eskubidea aitortzeak eskatzailea eta, hala dagokionean, bere legezko ordezkaria edo izatezko zainzailea behartu egiten duela eskudun organoari jakinaraztera eskubide horri*



eragin diezaiokeen bere egoerako edozein aldaketa, aldaketa gertatzen denetik 15 egun naturaleko epean.

Ebazpenean eskaerari uko egiten bazaio, horren arrazoiak adierazi beharko dira. Eskaera honako egoeraren bat gertatzen denean ezeztatuko da:

- 9. artikuluan jasotako sarbide-baldintzak ez betetzea.
- Eskaeran adierazitako beharrak eskatzaileak berak eta/edo familiako kideen laguntzaz eta/edo beste baliabide pertsonal batzuez bete ahal izatea.
- Laguntzaren ezaugarriak edo eskatzailearen bizitokia dela-eta, zerbitzu hori ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea.
- Zerbitzuak erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duen langilearentzat arrisku fisiko eta/edo psikikoak sor ditzakeela baloratzea.
- Behar bezala arrazoituta beste zio batzuk.

Ebazpena legeak agintzen duen epean jakinaraziko da, dagozkion baldintzetan. Horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsioa jar dakioket dagokion organoari. Zuzenean ere egin daiteke administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzionaletan, lege ezarritako epean eta baldintzetan.

Onespeneko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinarazi beharko zaio. Erakunde horrek zerbitzua sinatutako kontratuan jasotzen den epean eman beharko du.

17. artikulua.- Premiazko egoerak

Salbuespen gisa, eta beharra muturrekoa eta larria denean, udal gizarte-zerbitzuek prestazioa berehala ematen hastea proposa dezakete, eta larrialdiko prozeduraz izapidetuko da.

Gizarte-zerbitzuek, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzuaren larritasuna, eta erakundeak gehienez 48 orduko epean eman beharko du.

Gero, egutegiko 15 eguneko epean, eskabidea ohiko prozedurari jarraituz izapidetuko da.

2. ATALA. ZERBITZUAN ONARTU ETA ERABILTZEA.

18. artikulua.- Zerbitzuan onartzea

Zerbitzua jasotzeko zerrendako ordenaren arabera erabakiko da. Horretarako, Araudiaren I. eranskinean ezarritako irizpideen arabera egindako eskaeren balorazioaren ondoren lortutako puntuazio globala hartuko da kontuan.

Puntuazio bera duten eskaeretan, lehentasuna mendekotasuna duten eta horren arriskuan diren pertsonen eskabideek izango dute (MDD 23 eta 24).

IV. KAPITULUA ZERBITZUA EGOKITZEA ETA ZERBITZUAREN JARRAIPENA

19. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute, zerbitzua onuradunen beharriari egokitzen zaien ikusteko. Hala, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte eta, onuradunekin batera, proposatutako helburuak lortu diren ebaluatuko dituzte onuradunekin batera. Era berean, etxera bertara joateko aukera ere izango dute, hara joan beharra ikusiz gero, eta baita aldian behin Etixerako Laguntza ematen duten laguntzaileekin egoteko ere.

Ebaluazioak egin ahal izango dira aldian-aldian, dela onuradunak dela zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta. Zerbitzua ematen duen erakundeak eskaturik edo protokolo eta kontratuetan zehaztutako eran ere egin daitezke.

20. artikulua. Egokitzapen-aldia

Zerbitzuan sartu eta lehen hiru hilabeteetan, ulertuko da erabiltzaileak zerbitzuaren funtzionamendura eta ezaugarrietara egokitzeko aldian daudela. Gizarte-zerbitzuetako teknikariek edota zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalak une oro aipatuko dituzte sortzen diren arazoak, eta egokitzapen aproposa lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dituzte.

Erabiltzailearekin batera irtenbideren bat aurkitzen saiatu arren zaila bada erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzaileari egokitzea, edo ondorioztatzen bada zerbitzuak ez dituela pertsonaren beharrak asetzen, baloratu egingo da egoera eta proposamen bat egingo da, alde zurretik oinarrizko gizarte-zerbitzuek txostena burututa.

Egindako proposamena erabiltzaileari helaraziko zaio, eta hark 15 egun izango ditu alegazioak egiteko.



Alegazioak aztertu eta gero, behin betiko proposamena aurkeztuko zaio organo eskudunari, zeinak ebazpen arrazoituaz ebatziko baitu. Pertsona zerbitzutik ateratzea erabakiz gero, beste aukera bat proposatuko da, halakorik badago.

• **V. KAPITULUA ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA**

21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea

21.1. Zerbitzua aldi batez etetea

Dagokion espedientea bideraturik, zerbitzua aldi batez etengo da eskumena duen organoak emandako ebazpenaz, alde zuzenetik interesdunari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari eta, hala badagokio, zerbitzua eskaintzen duen erakundeari jakinaraziko zaie. Etixerako Laguntza Zerbitzua honako arrazoi hauengatik etengo da:

- Erabiltzailea aldi baterako ospitaleratzen bada.
- Erabiltzailea aldi batean etxebizitzan ez badago, baliabide sozial eta soziosanitarioez baliatu beharrez.
- Azken zerbitzuaz geroztik, laurogeita hamar (90) egun baino epe motzagoetan etxetik kanpo bada. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epean arabera luzatuko da.
- Erabiltzaileak 10. artikuluan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, ez-betetze hori zerbitzua eteteko arrazoi ez denean.
- 9. artikuluan ezarritako betekizunetakoren bat aldi batez galtzen badu.

Etxean aldi batez ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzaileek idatziz egoera horren berri eman behar dute gutxienez 7 egun lehenagotik, behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, halakoetan larrialdiagatik ezinezkoa denean aurrez abisatzeko epe hori betetzea.

Etixerako laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek zerbitzua aldi batean erabiltzeari uzten badiote, ez da preziorik kobratuko etete hori jarraiko 7 egun natural baino gehiagokoa bada. Horretarako, erabiltzaileek egoera horren berri eman behar dute, idatziz eta gutxienez 7 egun aurretik, behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, halakoetan larrialdiagatik ezinezkoa denean aurrez abisatzeko epe hori betetzea. Zerbitzua erabili gabe jarraiko 7 egun natural baino gutxiago egon izan bada, orduan ordaindu egin beharko dute esleitutako prezio publikoa.

21.2. Zerbitzua iraungitzea.

Dagokion espedientea bideratu eta gero, eskumena duen organoak ebazpena emango du eta zerbitzuko bajak ezarriko dira, alde zuzenetik interesatuari entzun eta gero. Ebazpen hori erabiltzaileari eta zerbitzua eskaintzen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Etixerako laguntza zerbitzua arrazoi hauengatik iraungiko da:

- Erabiltzaileak edo legezko haren ordezkariak idatziz uko egitea.
- Zerbitzua emateko ebazpenean aurreikusitako prestazio-epea amaitzea.
- Erabiltzailearen heriotza
- Erabiltzailea beste udalerrira batera lekualdatzeagatik, familiako kideen arteko txandakatzea kontuan hartu gabe.
- Onuraduna Etixerako Laguntza Zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzea.
- Zerbitzua ematea sortu zuen beharra desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.
- Zerbitzuan sartzeko betekizunetako bat behin betiko galtzea.
- Zerbitzua ematen segitzeko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.
- 30 eguneko epean gizarte- eta ekonomia-egoera aldatu izanaren berri ez ematea.
- Aldi baterako zerbitzuaren etenaldia amaitu eta gero, etxera ez itzultzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei fisikoki edo psikologikoki eraso egitea.
- Araudi honetan erabiltzaileentzat zehazten diren betebeharrak behin eta berriz ez betetzea (erreziboak epez kanpo ordaintzea, behin eta berriz ordaindu gabe izatea...).
- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duenarentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Horretarako, udal zerbitzu teknikoek alde aurreko balorazioa egin behar dute.



- Behar bezala arrazoitutako bestelako batzuk.

Zerbitzua iraungitzeko ebazpena eman eta gero, erabiltzaileak berriz ere zerbitzuan sartu nahi duela adierazten badu, beste eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori Araudi honetan zehaztutakoari jarraituz izapidetuko da.

Iraungitakoan erabiltzaileak zerbitzuaren ordainketa batzuk egin gabe baldin baditu, ordaintzek eskatuko zaio zerbitzua berriz eman aurretik.

VI. KAPITULUA ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

22. artikulua. *Etixerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoa*

Etixerako Laguntza Zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa une bakoitzean indarrean den Ordenantza Fiskalean zehazten dena izango da.

Ez zerbitzua ematen duen langileak ez zerbitzua esleitura duen enpresak, ez dute aurreko paragrafoan adierazitako diruaz gainerako ezer ere onartuko, ez dohaintzarik ez ordainketa gehigarririk. Zerbitzua esleitua zaion enpresak zaindu behar du baldintza hori betetzea.

23. artikulua. *Finantzazioa*

Zerbitzuak honako hauen kargura finantzatuko dira:

- Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eta dituen baliabide ekonomikoak kontuan harturik eskumena duen organoaren ebazpenean ezartzen den kopurua emateko sinatutako konpromisoa onartzen du, zerbitzua ematen hasteko nahitaezko baldintza gisa, eta dagokion ordenantza fiskalak horren gainean jasotzen duenari jarraituz.
- Orduko ordaindu beharreko prezioari onuradunak, dagokion ordenantza fiskalean jasotzen den arabera kalkulatuta, orduko ordaindu beharreko ekarpenari kenduko zaion zenbatekoa Administrazio Publikoaren kargura izango da.

24. artikulua. *Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena*

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordainduko du. Prezio hori bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta kalkulatu da, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzetan.

Erabiltzailearen ekarpena dagokion ordenantza fiskalean jasotzen diren elementuen arabera ezarriko da.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edota ezkutatzek zerbitzuaren eskaeraren artxibatzea ekarriko du, edo iraungitzea, jada emana baldin bazegoen, egintza horietatik etor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Eskumena duen administrazioak erabiltzaileari prezioa ordaintzean laguntza edo hobariren bat eman badio, hori itzularazteko prozedura hasiko da.

Norberaren ekarpenaren baldintzetan edo egoeretan aldaketaren bat dagoenean, ekarpen hori berrikusi egingo da, ofizioz edo erabiltzaileak edo bere ordezkariak hala eskatuta, dagokion ordenantza fiskalak ezarritako baldintzetan.

- **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Etixerako Laguntza Zerbitzuaren bitartez abian jarri ahal izango dira erabiltzailea bere etxebizitzan eta ingurunean jarraitzea laguntzen duten esperientzia/jarduera/prestazio berritzaile eta ez-ohikoak.

- **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudiaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

- **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Gaian eskumena duen udal organoak irizpideak jasotzen dituen eskuliburu bat prestatuko du. Eskuliburua erabiltzaileen eskura egongo da, eta bertan jasoko da erabiltzaile bakoitzari zerbitzua zenbat denboraz emango zaion, betiere 7. artikulua 2. atalean ezartzen diren mugen barruan, eta hori aplikatuko dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileek.

- **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Araudi honetako arauekin kontraesanetan dauden maila bereko nahiz txikiagoko arau guztiak indargabetuta geratu dira.

- **AZKEN XEDAPENA**



Araudi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hamabost egun igarota jarriko da indarrean.

I ERANSKINA

ZERBITZUA JASOTZEKO BAREMOA

Zerbitzuan jasotzeko baremoak eskatzaileen zerrendarako ordenamendu irizpideak ezartzen ditu eta zerbitzuan sartzeko lehentasuna, gizarte diagnostikoaren arabera.

Sartzeko baremoa zehazteari dagokionez, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badio, laguntza behar handiena duen pertsonaren egoera bakarrik baloratuko da, egoera ekonomikoaren dimentsioa zehaztean

BAREMOAREN EGITURA:

DIMENTSIOAK	PUNTUAZIO TARTEAK
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra (Oinarrizkoak)	<u>0-30</u>
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra (Instrumentalak)	<u>0-10</u>
Elkarbizitza eta gizarte sostenguko egoera	<u>0-30</u>
Etxebizitza edo bizitokiaren egoera	<u>0-10</u>
Egoera ekonomikoa	<u>0-20</u>
Guztira	<u>0-100</u>

I.- EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA (OINARRIZKOAK)

Pertsonak behar duten laguntza maila baloratzean datza, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko garaian (jan, jantzi, norberaren garbiketa, besteak beste), Horrela, pertsona horiek duten autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balorazio hori egiteko, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan (MBB) lortutako emaitza oinarri izango da, honakoari dagokionez:

Laguntzaren beharra zehazteko BAREMOA	Puntuak	
Baloratu ezinak	0	<input type="checkbox"/>
MBB 0-22 puntu	5	<input type="checkbox"/>
MBB 23-49 puntu	10	<input type="checkbox"/>
MBB 50-74 puntu	20	<input type="checkbox"/>
MBB 75-100 puntu	30	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (OINARRIZKOAK) (Gehienez 30 puntu)		<input type="checkbox"/>

II.- EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRA (INSTRUMENTALAK)

Pertsonak behar duten laguntza maila baloratzean datza, jarduera instrumentalak egiterako garaian (etxetresna elektrikoak, erosketak, eta abar). Horrela, pertsona horiek duten



autonomia maila mantentzea eta sustatzea da helburua, eta bizi kalitate onarekin bizitzea beren ingurunean.

Balorazio hori egiteko, hurrengo baremoa erabiliko da:

Jarduera instrumentaletarako Baremoa	Puntuak	
Etxeko tresnak (garbigailua, mikrouhina, sukaldea, berogailua...) eta komunikabideak erabiltzea (irratia, telefonoa, telebista)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Etxeko lanak (hautsa kendu, erratza pasatu, harrikoa egin, ohea atondu, izarak aldatu, aspiragailua, plantxa,...)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Erosketak (elikagaiak, medikazioa, arropa, etxeko tresnak eta abar erosi)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Elikagaiak prestatzea (otorduak prestatu, alde zurretik prestatuta dauden jakiak berotu)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Ingurunean arazorik gabe ibiltzea (garraio publikoa erabili, udalerrri barruan egunez zein gauez galdu gabe ibili)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>
Kudeaketa ekonomiko-administratiboak eta medikoak (dirua atara, ordainagiriekin moldatu, medikuarenera joan...)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAREN BEHARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (INSTRUMENTALAK) (Gehienez 10 puntu)		<input type="checkbox"/>

III.- EIKARBIZITZA ETA GIZARTE SOSTENGUKO EGOERA:

Beharrak betetzeko pertsonak duen laguntza maila ezagutzea da helburua, honako aldagai hauek irizpidetzat hartuta:

- Elkarbizitza egoera: Bakarrik ala norbaitekin bizi den. Beste adindunekin bizi den (senitartekoak edo lagunak), edo beste senitarteko edo lagunekin.
- Sare informalk duen ala ez, eta, baldin bada, sare horrek laguntza emateko eta hurbiltzeko dituen aukerak (senitarteko eta / edo lagunak), eta zer laguntza mota ematen duen.

Balorazio hori egiteko, hurrengo baremoa erabiliko da:

Baremo Sozio-Familiarra	Puntuak	
1.- Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona, edo baztertuta dauden adingabeak: tratu txar fisiko edo psikikoak jasotzen dituztenak, abusu ekonomikoa jasaten dutenak, oinarrizko arreta falta edo bazterketa-egoeran daudenak.	30	



2.-. Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona, familiaren edota gizartearen babesik gabe: seniderik ez duelako, edo ohiko zaintzaileak ezin diolako eman beharreko arreta arrazoi objektibo batengatik, edo familian arazoak edota senideekin hauste larria izateagatik. / Familiak arriskupean dauden adingabeekin.	25	
3.-. Bakarrik bizi den pertsona, familiaren edota gizartearen gutxieneko babesa duena baina bere beharrak asetzeko nahikoak ez direnak. / Gehiegizko zamak edo egoera sozial ezegonkorak dituzten familiak.	15	
4.-. Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasun/desgaitasunen bat duen pertsona batek lagunduta), familia edo gizartearen babesa dauka zenbait laguntza ematen diotelako, baina behar duen arretarako ez da nahikoa.	10	
5.-. Bakarrik bizi den pertsona (mendekotasunen bat ez duen pertsona batek lagunduta), familia edo gizartearen babesa dauka, baina behar duen arretarako ez da nahikoa.	5	
6.-. Bakarrik edo lagunduta bizi den pertsona eta familia edota gizartearen babesa dauka, erraz eskuragarria.	0	
EGOERA SOZIO-FAMILIARRARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 30 puntu)		

IV.- ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIAREN EGOERA

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarriak balioztatzean datza; izan ere, hauei eragin diezaiokete: Era autonomoan moldatzeari, ingurunearen kontrolari, aukeratzeko ahalmeneri, baita laguntza eta/edo sostengua jasotzeko aukera ere.

Aintzat hartzeko aldagaiak dira iristen erraza izatea, bizitzeko egokia izatea eta ekipamendua, honako baremoaren arabera:

Etxebizitza edo bizitokiaren egoerarako BAREMOA		
IRISGARRITASUNA		P untuak
Eraikina ren kanpoaldea	➤ Ez dago arazorik eraikinean sartu ahal izateko	0
	➤ Etxebizitzara heltzeko eskailerak igo eta jaitsi behar dira edo hesi arkitektonikoren bat zeharkatu behar da Herri-erdigunetik aldentuta dago eta oinarrizko baliabideak eskuratzeko zailtasunak daude	1
Eraikina ren barrualdea	➤ Ez dago arazorik eraikinean sartu ahal izateko	0
	➤ Igogailu edo etxebizitzara heltzeko atarian eskailerak daude, ezin direnak saihestu. // Eraikinak ez dauka igogailurik	1
	➤ Ez dago inolako hesi arkitektonikorik	0



Etxebizit zaren barrualdea	➤ Badaude hesi arkitektonikoak etxean arazorik gabe ibili eta mugitzea eragozten dutenak, ez dauka segurtasun- edota egokitze-neurririk	2	
IRISGARRITASUNA GUZTIRA (A+ B+ C)			

BIZIGARRITASUNA		P	
		untuak	
➤	Ez dauka arazorik etxebizitzan bizitzeko	0	
➤	Mantentze egokia behar du	1	
➤	Egitura arloko arazoak ditu (hezetasuna, ez dago komunik, sukalderik; ez dago espazio nahikorik; itoginak; ur- eta elektrizitate-instalazio eskasak)	3	
BIZIGARRITASUNA GUZTIRA			

EKIPAMENDUA			P	
			untuak	
	GO	BADA BADA BIL		
Sukaldea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Berogailua/termoa/galdara	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Berokuntza-sistema	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Garbigailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Hozkailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Telefonoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
➤	Etxebizitza baten ekipamendurako oinarrizkoak diren elementu guztiak ditu eta ibiltzeko egoera onean daude		0	
➤	Gutxienez 4 elementu ditu, edo elementu guztiak ditu eta baten bat ez dabil, baina konpondu daiteke		1	
➤	Ekipamendurako oinarrizkoak diren 4 elementu baino gutxiago ditu edota baten bat ez dabil eta ezin da konpondu edo erabiltzeak berak ezin du beste batekin ordeztu		3	
EKIPAMENDUA GUZTIRA				
ETXEBIZITZAREN EGOERARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 10 puntu)				

v.- EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa baloratzeko, Ordenantza Fiskalean ezartzen diren baldintzekin bat, familiak hilean jasotzen duten aurreikusitako diru-kopurua kontuan hartuko da. Lanbide arteko



Gutxieneko Soldataren (LGS) % 181,70tik behera (1.500.-€), 11 tarte zehaztuko dira arian-arian puntuatuko direnak:

Familiaren hileko egoera ekonomikorako BAREMOA	Puntuak	
LGSren % 60,57raino	20	<input type="checkbox"/>
LGSren % 60,58–72,68	19	<input type="checkbox"/>
LGSren % 72,69 –84,79	18	<input type="checkbox"/>
LGSren % 84,80–96,91	16	<input type="checkbox"/>
LGSren % 96,92%–109,02	14	<input type="checkbox"/>
LGSren % 109,03–121,13	12	<input type="checkbox"/>
LGSren % 121,14–132,25	10	<input type="checkbox"/>
LGSren % 132,26–145,36	8	<input type="checkbox"/>
LGSren % 145,37–157,47	6	<input type="checkbox"/>
LGSren % 157,48–169,59	4	<input type="checkbox"/>
LGSren % 169,60–181,69	2	<input type="checkbox"/>
LGSren % =>181,70	0	<input type="checkbox"/>
EGOERA EKONOMIKOARI DAGOKION PUNTUAZIOA (Gehienez 20 puntu)		<input type="checkbox"/>

BIGARRENA. Erregelamendu hori jendaurrean jartzea eta interesdunen entzunaldia hastea; horretarako, ALHAO aldizkarian eta udalaren iragarki taulan argitaratuko dira iragarkiak, eta hogeita hamar egunbaliodun izango dira erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko. Erreklamazio eta iradokizun horiekudalbatzak ebatziko ditu. Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betikoz onartutzat joko da, Udalbatzaren aldetiko Akordio berariazkoaren beharrik gabe.

Aldi berean, Erregelamenduaren testua Udalaren web-atarian argitaratzea (helbidea <https://artziniegakoudala.eus>) eragindako herritarrei horren berri eman eta beste pertsona edo erakundeek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotze aldera.

HIRUGARRENA. Alkate-udalburua gaitzea gai honi lotutako agiri mota oro izenpetu sinatzeko».

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: bai. EH-Bildu taldetik botazioan abstentzioa emango dugu, alderdi politiko honek Eudelen barruan egin zuen moduan, izan ere, uste dugu erregelamendu hau nabarmen hobetu daitekeela. Aldundia mugigaitz dago eta gure adin nagusiko pertsonentzako etxez etxeko laguntza zerbitzua bezalako oinarrizko zerbitzu bat hiltzen uzten ari da. Horren aurrean, EH-Bildu alderdiak, Eudelen barruan, erregelamendu horretan hobekuntza nabarmenak gaineratzeko lan egin du. Besteak beste, gehienezko arreta-orduan % 25 areagotzea lortu du, zerbitzu honi etekina atera ahalko dioten kasuistiken tipologia areagotuz. Gardentasun-ariketa bat egin da lehen Aldundiak barneko jarraibideekin kudeatzen zituen zenbait alderdi modu publikoan arautzean. Lorpen horiek hori badaude ere, EH-Bildu taldetik uste dugu zer hobetu asko dagoela eta Aldundiaren eta lurraldeko Alkateen esku-hartzean gure herritarrekiko



konpromisorik eza nabaritu dela. Ulertzen dugu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek autonomia gehiago izan behar dutela gure auzotarrei eragiten dieten erabakiak hartzeko orduan, izan ere, haiek dira, kalez kale ibiltzen direlako, erabiltzaile horien egoera ondoen ezagutzen dutenak. Ordenantza fiskalari aurrera egiteko aukera gehiago eman behar zaiola uste dugu, ordenantza hori Arabako Foru Aldundiak erabili izan duen berbera delarik, kopia eta erantsita, eta populazioaren % 80 baino gehiagok ezarritako maximoa ordaintzea eragiten duena. Premiazkoa da zerbitzua mendekotasun arinak dituzten pertsonengana birbideratzea, horiek beren ingurunean bizitzen jarrai dezaten, gehienez asteen hiru ordu ez dirudi nahikoa babes denik, ezta urrik eman ere. Etxez etxeko laguntza zerbitzu arin bat behar dugu, eta horretarako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen injerentzia-lanak mugatu behar dira ezinbestean, muturrerainoko burokrasia duena, fiskalizatu gehiago egiten duena zerbitzuetan hobekuntzak finkatu baino. Horregatik, hori dela eta, abstentzioa emango dugu.

Alkatea: soilik esan 2018. urterako etxez etxeko laguntza zerbitzurako Foru Aldundiaren partida 6.500.000 eurokoa dela, 8.000.000 eurora arte areagotu daitekeena. Hori Foru Aldundiak aurrekontuen kargura hartzen du beregain, Udalek ez dute inolako ekarpenik egin behar. Ondoren, progresibitatearen puntuan, ordenantzaren puntua, kostua orduko 6,12 eurokoa dela esan. Beste lurralde batzuetan, alderatuz, askoz ere handiagoa da, eta hilean 1.500 eurotik beherako errenta-unitateetarako hobariak daude. Horrenbestez, progresibitate-irizpideak ere barneratzen ditu. Eta ondoren, orduei dagokienez, asteen 30 minutuko minimoa ezartzen du, eta 20 ordura arteko igoera bat, lehen asteen 16 ordukoa zena, erabiltzaileak artatzeko, eta ezohiko kasuetan 28 ordura artekoa. Hori da jasotzen dena. Besterik aipatu nahi ez baduzue, bozketa egingo dugu.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderdikoak (4).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ONARTZEA.

“2018KO APIRILAREN 26AN EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Kontuan hartuz 2018ko apirilaren 25eko Alkatetzaren Probidentziaz Idazkaritzan txostena eskatu zela Arabako Foru Aldundiak eraturako Etxez Etxeko Laguntzako Gizarte Zerbitzua arautzeko udal Ordenantza onartzeko prozedura eta legeria aplikagarriari buruz.

Alkatetzak 2018ko apirilaren 20an Herritarren Informazio Batzordea deituta, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo,

AKORDIOA



LEHENA. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa arautzeko Ordenantza onartzea, espedientean agertzen diren baldintzekin, jarraian jasotzen den moduan idatzita:

**<<ARTZINIEGAKO UDALEKO ORDENANTZA FISKALA
ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA**

1. artikulua.- Xedea

Etixerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoak arautzea da ordenantza honen xedea. Honako alderdi hauek arautzen ditu, zehazki:

- Zerbitzuaren erabiltzaileak ordaindu beharko duen prezio publikoaren zatia zehazteko irizpideak.
- Sortzapena eta ordainketa arautuko dituzten irizpideak.
- Prezio publikoak ordaintzeko betebeharra izango duten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoa eta ahalmen ekonomikoaren arabera ezarriko diren hobarien zenbatekoa.

2. artikulua.- Eremua

Ordenantza fiskal hau Etixerako Laguntza Zerbitzuan ezarriko da, bai zuzeneko kudeaketa-erregimeneko zerbitzuan, bai beste herri-erakunde batzuekin hitzartutako zerbitzuan, bai erakunde pribatuekin lotutako itunpeko, hitzartutako edo kontratupeko zerbitzuan.

3. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra duten pertsonak

1. Prezio publikoa ordaindu beharko dute:
 - a) Etixerako Laguntza Zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoek, baldin eta 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aurreikusitako egoeretan ez badaude.
 - b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, beraien guraso-ahala, tutoretza edo zaintza duten pertsonak ordaindu beharko dute zerbitzua.
 - c) Helduei dagokienez, zerbitzuaren onuradunek legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bidez jarduten badute —betiere zerbitzua eskuratzeko araudian aurreikusitakoarekin bat—, azken horiek ordaindu beharko dute zerbitzua; halako kasuetan, baina, ordezkaturako pertsonaren errentaren eta ondarearen kargura ordainduko dute, eta ordezkaturako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da aintzat ordaindu beharreko kopurua zehazterakoan.
2. Hala badagokio, eta era subsidiarioan, zerbitzua ordaindu behar duen pertsonaren aldetik doako besterentzea (transmisioa) jaso duten pertsonak ordaindu beharko dute zerbitzua. Alegia, erabiltzaileak berak, artikulua honetako 1. paragrafoaren arabera zerbitzua ordaindu behar duen pertsonak, edota haren ezkontideak edo ezkontzaren pareko lotura duen pertsonak —ordenantza fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehazten da lotura mota hori— doan egindako besterentzea jaso duten pertsonak ordaindu beharko dute, baldin eta besterentzea egiteko unean emaleak 60 urte baino gehiago bazituen edota besterentze hori zerbitzu-eskabidea egin aurretiko 10 urteetan gertatu bada. Ordaintzeko betebeharrak badu gehienezko muga: besterentutako ondasunek edo eskubideek duten merkatu-balioaren gehienezko zenbatekoa zorra galdagarri bihurtzen den unean.

I. TITULUA. ERABILTZAILEAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA

4. artikulua.- Prezio publikoa osorik ordaintzea

1. Ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluaaren arabera Etixerako Laguntza Zerbitzua ordaintzeko betebeharra duten pertsonak osorik ordainduko dute prezio publikoa, horretarako ahalmen ekonomiko nahikoa badute. Gainera, zenbateko hori ordainduko dutela ziurtatzeko berme egokiak formalizatzea eskatzeko aukera egongo da.
2. Lehenengo paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honen 3.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordaindu beharko duten pertsonak ahalmen ekonomiko nahikoa dutela joko da, baldin eta ahalmen hori II. eranskinean zerbitzu mota bakoitzerako zehazten diren mugen parekoa edo handiagoa bada. Pertsonaren ahalmen



ekonomikoa, betiere, ordenantza fiskal honen III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera zenbatuko da.

3. Ordenantza fiskal honen 3.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa artikuluko honen 2. paragrafoan aipaturikoa mugen azpitik badago, 3.2. artikuluan arabera era subsidiarioan ordaindu behar duen pertsonengana joko da, erabiltzailearen ekarpena osatu eta prezio publikoaren zenbateko osoa betetzen den arte. 3.1. artikuluan arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoaren ondorioz, inolako ekarpenik egiterik ez badu, 3.2. artikuluan arabera era subsidiarioan ordaindu behar duen pertsonen zerbitzuaren prezio publiko osoa ordaindu beharko dute.

5. artikulua.- Hobariak

1. 3.1. artikuluan arabera ordaintzeko betebeharra duten pertsonen ez badute prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalmen ekonomikoa nahikorik (euren ahalmen ekonomikoa II. eranskinean zehaztutako mugen azpitik dagoelako), prezio publikoen hobariak eskuratzeko aukera izango dute.
2. Aurreko paragrafoan aipaturiko hobariak progresibitate-printzipioaren arabera ezarriko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa aintzat hartuta. Ahalmen ekonomikoa hori, betiere, ordenantza fiskal honen III. tituluko I. kapituluan jasotako irizpideen arabera zehaztuko da.
3. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak ordenantza fiskal honen III. eranskinean zehazten dira, eta I. eranskinean finkatutako prezio publikoak indarrean jartzen direnean ezarriko dira. Prezioak aldatu edo eguneratzen direnean (16. artikuluan xedatzen den bidea erabiliz), dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

6. artikulua.- Erabilera motaren arabeko salbuespen partzialak

1. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek aldi batez zerbitzua erabiltzeari uzten badioten, ez da inolako preziorik sortuko, baldin eta etenaldia ondoz ondoko zazpi egun natural baino luzeagoa bada. Ondorio horretarako, erabiltzaileek gutxienez 7 egun lehenago eman beharko dute horren berri, idatziz, salbu eta larrialdiren bat dela medio (eta behar den bezala justifikatuta) aurreabisuaren epea betetzerik ez badago. Zerbitzua erabiltzen ez den aldia ondoz ondoko 7 egun natural baino laburragoa bada, dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da.
2. Epealdi horretan aldi berean beste zerbitzu batzuk erabiltzen badira, ez da inolako salbuespen partzialik ezarriko prezio publikoan.
3. Ez da prezio publikoa ordaintzeko salbuespen partzialik ezarriko, baldin eta zerbitzua eskuratzeko araudiarekin bat, eskatutako informazioa emateko edo dokumentazioa aurkezteko betebeharrean atzerapena egotearen ondorioz gertatzen bada, edota prezio publikoa behin eta berriro ez ordaintzeagatik gertatzen bada.

7. artikulua.- Erabilera libreko zenbatekoa

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuta dago, ordenantza fiskal honen III. eranskinean zerbitzu mota bakoitzean ezarriko diren hobariak zehazteko formularen ondorioz.

II. TITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

8. artikulua.- Sortzapena

Zerbitzua benetan ematen den egunean sortuko da araudi honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra, eta egun horretan hasi eta zerbitzua behin betiko eteten den egunera arte iraungo du.

9. artikulua.- Ordainketa

Esleitutako prezio publikoaren ordainagiria banku-helbideratzearen bidez aurkezten zaion unean —berdin dio osorik ordaindu beharrekoa den, hobariduna den edo salbuespen partzialeko den—, ordainketa burutu beharko du horren betebeharra duen pertsonak.



III. TITULUA. KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK
I. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA
10. artikulua.- Ahalmen ekonomikoaren osagaiak

1. 3.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordaintzeko betebeharra duten pertsonen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko (eta, beraz, prezio publikoan izango duten partaidetza-maila zehazteko), familiaren urteko errenta eta ondarea hartuko dira aintzat. Izan ere, kapitulu honetan xedatutako balorazio-irizpideak ezarriko dira horien gainean.
2. Honako hauek erabiliko dira ahalmen ekonomikoa zenbatzeko:
 - a) Eskura dauden azken datu fiskalen balioak, salbu eta ondorengo dataren batean balio horiek aldarazi dituen gertaera garrantzitsuren bat gertatu bada. Halakoetan, daturik berrienak erabiliko dira.
 - b) Hiri- edo landa-ondareen kasuan, hiru balio hauetatik handiena hartuko da aintzat: katastro-balioa, balio egiaztatua edota Administrazioak zehaztu duen balioa zergatarako eta preziotarako, kontraprestaziorako edo eskurapen-baliorako.

11. artikulua.- Errenta

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko ondorioetarako, errenta edo sarrera konputagarritzat joko dira familia-unitateak urtean dituen etekinak eta eskubideak. Lanetik eskuratutakoak izan daitezke edo beste edozein arrazoiengatik eratorritakoak izan daitezke. Eta, betiere:
 - a) Fondo publiko nahiz pribatuen kargurako pentsioak eta prestazio ekonomikoak. Horietatik jasotako diru-sarrera gordinak zenbatuko dira eta, ondorio horretarako, halakotzat joko dira zerbitzuaren hartzaileak berak hartzen dituen pentsioak, subsidioak, prestazio ekonomikoak eta eskubide ekonomikoak, artikulua honetan 2. paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.
 - b) Norberaren konturako lanetik nahiz inoren konturako lanetik datozen etekin oso-osoak.
2. Errenta zehazterakoan, prestazio hauek ez dira aintzat hartuko:
 - a) 39/2006 Legeak, azaroaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, xedatzen dituen prestazio ekonomiko finalistak. Alegia: familia-inguruneke zaintzetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.
 - b) Aipatu berri dugun a) ataleko prestazioen pareko izaera eta xedea duten prestazio hauek:
 - Ezintasun handiko osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako errege-dekretuaren 139.4 artikulua arautzen duena. Gerora, lege horri aldaketa batzuk egin zizkion abenduaren 10eko 52/2003 Legeak, Gizarte Segurantzaren alorreko xedapen berezikoei buruzkoak.
 - Ehuneko 75etik gorako desgaitasun-maila duen 18 urtetik gorako seme-alaba baten kargua izateagatiko diru-esleipena, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako errege-dekretuaren 182 bis 2c) artikulua arautzen duena. Gerora, lege horri aldaketa batzuk egin zizkion abenduaren 10eko 52/2003 Legeak, Gizarte Segurantzaren alorreko xedapen berezikoei buruzkoak.
 - Beste pertsona baten beharra izateagatiko kotizatu gabeko ezintasun-pentsioaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako errege-dekretuaren 145.6 artikulua arautzen duena. Gerora, lege horri aldaketa batzuk egin zizkion abenduaren 10eko 52/2003 Legeak, Gizarte Segurantzaren alorreko xedapen berezikoei buruzkoak.
 - Hirugarren pertsona batengatiko laguntza-sorospena, elbarrien gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitakoa, eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko lege orokorren testu bategina onartzen



duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena, baldin eta aipatu berri dugun Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartu zenean onuradunak dagoeneko laguntza hori jasotzen bazuen eta Lege horren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako baldintzak betetzen bazituen.

3. Errenta baloratzeko ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak emandako informazioa hartuko da erreferentziatzat, 10.2 artikuluan aipaturiko datu fiskaletan oinarrituta. Honako kontzeptu hauen batura zenbatuko da diru-sarreratzat:

- Laneko etekin osoak
- Jarduera profesionalen, enpresa-jardueren, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren etekin garbiak
- Egotzitako lan-errenta salbuetsi osoak.

Artikulu honetako 2. paragrafoan aipatutako errentarik jasoz gero, prestazio ekonomiko horien ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, paragrafo horretan aurreikusitako ondorioetarako salbuetsitako zenbatekoa zehazte aldera.

4. Errentaren hileko konputua zehazteko, urteko errenta hamabi hilekotan banatuko da.

12. artikulua.- Ondarea

1. 10. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ondaretzat joko da:

- a) Familia-unitateko kideek titulartasun osoa edo partziala duten ondare eta eskubide ekonomikoen multzoa. Eskura dauden azken datu fiskalak hartuko dira horretarako erreferentziatzat, finantza-aktiboen harira eskatzen den informazioarekin osatuta.
- b) Kalte-ordainak eta kapitalizatutako errentak, berdin dio ekitaldi bakarrean edo gehiagotan sortutakoak izan.
- c) Erabiltzaileak, beraren ezkontideak edo ezkontzaren pareko lotura duen pertsonak — ordenantza fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehazten da lotura mota hori— edota ordenantza fiskal honen 3.2. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera, ordaintzeko betebeharra daukan pertsonak doan egindako besterentzeen balioa.

2. Ez da ondarean zenbatuko:

- a) Ohiko etxebizitza, salbu eta aparteko balioa badauka (aparteko balioa duela joko da katastro-balioa 300.000 eurotik gorakoa bada). Halakoetan, muga horretatik gora dagoen katastro-balioa zenbatuko da ondare-ondorioetarako.

Ondorio horretarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartuko dira, etxebizitzaz beraz aparte, garaje bat eta trasteleku bat. Landa- edo hiri-izaerako familia bakarreko etxebizitza bada, banandu gabe dagoen lursail atxikia ere etxebizitza kontzeptuaren barruan sartuko da.

- b) Ondare eta eskubideen gaineko kargak eta zamak, beraien balioa murrizten dutenak.
- c) Zor eta obligazio pertsonalak.
- d) Babes bereziko ondare bati emandako ondare eta eskubideak, Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko azaroaren 18ko 41/2003 Legearen, Prozedura Zibilaren Legearen, eta asmo horretarako zerga-araudiaren babesean eman badira. Esan berri duguna ez da aintzat hartuko, ordea, baldin eta ondare horren titularrak eskuratzen badu zerbitzua; izan ere, kasu horretan berorrek estaltzen ditu pertsonaren bizitza-beharrizanak, aipaturiko Legearen 1.1. eta 5.4. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3. Ondarearen hileko konputua zehazteko, urteko ondarearen zenbatekoa hamabi hilekotan banatuko da.



13. artikulua.- Familia-unitatea

1. Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia-unitatearen osaera hauek hartuko dira aintzat:

- a) Zerbitzuaren onuraduna adin nagusikoa bada, familia-unitateko kideztat joko dira:
 - Zerbitzuaren onuraduna bera
 - Beraren ezkontidea edo ezkontzaren pareko lotura duen pertsona, legez onartuta eta behar bezala egiaztatuta, lehen xedapen gehigarrian finkatu bezala
 - Adin txikiko seme-alabak
 - 18 urteko edo gorako seme-alabak, baldin eta ehuneko 65etik gorako desgaitasuna badute, eta betiere eskabidea egindako egunean zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.
 - 18 eta 23 urte bitarteko seme-alabak, ikasketa akademiko arautuak egiten badituzte.
- a) Zerbitzuaren onuraduna adingabea bada, familia-unitateko kideztat joko dira:
 - Zerbitzuaren onuraduna bera
 - Beraren gurasoak
 - Neba eta arreba adingabeak
 - 18 urteko edo gorako neba-arrebak, baldin eta ehuneko 65etik gorako desgaitasuna badute, eta betiere eskabidea egindako egunean zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira
 - 18 eta 23 urte bitarteko neba-arrebak, ikasketa akademiko arautuak egiten badituzte.

2. Nolanahi ere, pertsona bakoitza familia-unitate bakar bateko kidea izan daiteke.

14. artikulua.- Ahalmen ekonomikoa baloratzeko irizpideak

1. Ahalmen ekonomikoa zehazteko, familia-ondarearen urteko zenbatekoaren honako ehuneko hauek gehituko zaizkio familia-errentaren urteko zenbatekoari. Ehunekoak aldatu egingo dira erabiltzailearen adinaren arabera, ondoren agertzen den bezala:

- a) 35 urtetik beherakoak, beraien ondarearen ehuneko 3.
- a) 35 urtetik 65 urtera bitartekoak, beraien ondarearen ehuneko 6.
- a) 65 urtetik gorakoak, beraien ondarearen ehuneko 20.

2. Era berean, honako irizpide berezi hauek ere ezarri behar dira:

- a) Familia-unitatean pertsona bakar bat badago, ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, zuzenean ezarriko da 1. paragrafoan aurreikusitakoa.
- b) Familia-unitatean bi pertsona badaude, ezarri beharreko prezio osoa edo hobariduna kalkulatzeko, hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80 erabiliko da (eta 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da hileko ahalmen ekonomiko osoa).
- c) Familia-unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) atalean aurreikusten den ehuneko 80 horri ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.

3. Ahalmen ekonomikoaren hileko konputua zehazteko, urteko ahalmen ekonomikoa hamabi hilekotan banatuko da.

II. KAPITULUA. EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA

15. artikulua.- Ebazpena

Organo eskudunaren ebazpenak zehaztuko du zerbitzu horri ezarriko zaion prezio publiko osoa bai eta, hala badagokio, ahalmen ekonomikoaren arabera dagokion prezio publiko hobariduna.

16. artikulua.- Ofiziozko berrikuspena eta komunikazio-betebeharra

1. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren truke ordaindu beharreko prezio publikoak (berdin dio osoak, hobaridunak edo partzialki salbuetsiak izan) ofizioz berrikusiko ditu organo eskudunak; bestela, edota pertsona interesdunak, haren legezko ordezkariak edo



izatezko zaintzaileak eskatuta berrikusiko ditu, hala berrikusketa indibidualaren esparruan nola berrikusketa orokorraren esparruan. Berrikuspen horien ondorioz, prezio publikoa aldatzeko aukera egongo da, dagokion ebazpenaren bidez, baldin eta hasierako prezio publikoa zehazteko oinarritzat erabili zen ahalmen ekonomikoan aldaketa nabarmenik egon dela egiaztatzen bada.

1. Aurrekoan adierazitakoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honek aipagai duen edozein zerbitzuren erabiltzaileak aldaketarik izan badu bizikidetzako-egoeran, egoera zibilean, etxebizitzan, errentan, bizikidetzaren ondorioz zenbagarriak diren ondare propioetan edo inorenetan, bai eta berari esleitutako prezio publikoan eraginik izan lezakeen beste edozein egoeratan, horren berri emateko hogeita hamar eguneko epea izango du erabiltzaileak berak nahiz haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak.
2. Administrazio eskuduna ohartzen bada ahalmen ekonomikoan aldaketa egon dela eta aldaketa hori ez dela egoki jakinarazi aurreko paragrafoan aurreikusi bezala, esleitutako prezio publikoa berrikusi eta egoera berrira egokituko du. Bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, egoera-aldaketa gertatu zen unetik aurrera ezarriko da atzeraeraginez. Horrenbestez, 3.1. artikulua arabera ordaintzeko betebeharrak duen pertsonak aldi horretan metatutako atzerapenak ordaindu beharko ditu.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da atzeraeraginez ezarriko.

3. Administrazioari ahalmen ekonomikoan aldaketa egon dela jakinarazi bazaio eta administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, 2 hilabeteko epean prezio publikoa berrikusi ez bada, bi egoera egon daitezke:

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, ez da atzeraeraginez ezarriko.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretiaz esleitutakoa baino txikiagoa bada, bidegabe kobratutako zenbatekoak itzuli beharko ditu administrazioak.

16. artikulua.- Prezio publikoak eguneratzea

Ordenantza fiskal honetan finkatutako prezio publikoak eguneratzeko beste ordenantza bat beharko da, eta bertan zehaztuko dira, halaber, ezarri beharreko hoberiak eta zenbatekoa izango den ahalmen ekonomiko nahikoa.

III. KAPITULUA. PREZIO PUBLIKOENGATIKO ZORRAK

17. artikulua.- Prezio publikoengatiko zorrak

1. Zerbitzuagatik ordaindu behar den prezio publikoaren ordainagiria—berdin dio prezio osoa izan, prezio hobariduna izan— bankutik itzuli eta, ondorioz, zorrik gertatzen bada, zorra kitatzeko eskatuko zaio ordainketa egin behar duen pertsonari, eta 30 egun naturaleko epea izango du ordainketa burutzeko edo ordainketa zatikatzea eskatzeko.
2. Aurreko puntuan aipaturiko epea iragan eta zorra ordaindu ez eta ordainketa zatikatzea eskatu ez bada, administrazio-premiamendu bidez eskatuko da 1. paragrafoan aipatzen den prezio publikoa.
3. Prezio publikoa behin eta berriro ordaindu gabe utziz gero, zerbitzua jasotzeko eskubidea bertan behera gelditi liteke.
4. Zerbitzua eskuratzeko prozeduran ikusten bada ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ordaintzeko betebeharrak duen pertsonak aurretiaz zorrak dituela Etxerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoan, eskatzaileari 30 egun naturaleko epea emango zaio, jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta,



zor horiek kitatzeko edota zorra zatikatzea eskatzeko, artikuluko honetan 1. eta 2. ataletan aurreikusitako terminoetan.

Eskatzaileak ez badu zorra ordaintzen, zerbitzu berria eskuratzeko eskaera bertan behera geldituko da eta beste tramiterik gabe artxibatuko da, organo eskudunak emandako ebazpenaren ondoren. Dena dela, pertsona horrek gerora zorra ordaintzeko aukera izango du, eta zerbitzua eskuratzeko prozedura berri bat abiarazi.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren pareko lotura

1. Ordenantza fiskal honen ondorioetarako, ezkontzaren pareko loturakotzat joko dira Izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean zehaztutako izatezko bikoteak, Lege hori baitago indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan.
2. Lotura hori egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria behar da edota, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiria, betiere aipaturiko Legearen 3. artikuluan araututakoari jarraikiz.

BIGAREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezohiko egoerak

1. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek izan litzaketen egoera sozial eta ekonomiko bereziak direla eta, organo eskudunak hobari partzialak edo osoak finka litzake. Ildo beretik, ordenantza fiskal honetan aurreikusitako zenbateko hobaridunak, zenbateko salbuetsiak eta erabilera libreko zenbatekoak handitzea erabaki lezake.
2. Seigarren artikuluan jasota ez dauden arrazoiak direla eta, zerbitzuaren erabilera etenak gertatzen badira, organo eskudunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onar litzake, plaza-erreserbaren kontzeptupean.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

1. Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.
2. Egun horretan edo hortik aurrera Etxerako Laguntza Zerbitzua eskatzen dutenei ezarriko zaie ordenantza fiskal hau.

I. ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Etxerako Laguntza Zerbitzua	6,12 €/ordua
-----------------------------	--------------

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKO NAHIKOAREN MUGA

I. eranskinean zehaztutako prezio publikoek indarrean dirauten bitartean, eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta terminoetan ahalmen nahikoa dagoela joko da.

1. Hobariak zehaztearen harira, 5.1. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela joko da baldin eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa hilean 1.500 €-koa edo handiagoa bada.

Era berean, ahalmen nahikoa dagoela joko da pertsonak 50.000 euroko edo hortik gorako ondare konputagarria duenean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomiko aurreko tauletan zehaztutakoa baino apalagoa izan.

III. ERANSKINA

HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoek indarrean irauten duten bitartean, ondorengo taulan agertzen diren hobariak ezarriko zaizkie ordenantza fiskal honen 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zerbitzuei dagokien prezio osoa ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikoa ez dutenei.



Etixerako Laguntza Zerbitzuaren truke ordaindu beharreko prezio indibidualizatua zehazteko, taula-baremo hau ezartzearen ondorioz sortuko diren zenbatekoak ezarriko dira, familia bakoitzaren hileko ahalmena aintzat hartuta.

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	ZENBATEKO HONETARAINO	ZENBAT	GAINERAKOA, ZENBATEKO HONETARAINO	EHUNEKOA
500,00 €-raino	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60
1.000,00	900,00	2,92	100,00	0,75
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 € baino gehiago		Gehieneko tarifa		6,12 €/ordua

Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazte aldera, hilean onartutako ordu-kopurua zehaztu beharko da. Horretarako, 4,3rekin biderkatuko da asteko ordu kopuruen batura.>>

BIGARRENA. *Espedienteari dagokion izapidea eta publizitatea ematea, berau Udal honetako iragarki-oholean nahiz Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, hogeita hamar egun balioduneko epean zehar. Epe horren barruan interesdunek aukera izango dutelarik berau aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak planteatzeko.*

Halaber, interesdunen eskura izango da Udal honen web-atarian [helbidea <https://artziniegakoudala.eus>]

HIRUGARRENA. *Kontuan hartzea, espedientearen aurrean erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrez adierazitako epearen barnean, Akordioa behin betikoa dela, martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuz onartutako Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bateginako 17.3. artikulua araber.*

LAUGARRENA. *Alkate-Presidente jaunari gai honekin lotutako dokumentuak sinatzeko eskumena ematea”.*

Alkatea: uste dut lehen aipatu ditugula zenbait gauza prezio publikoaren orduko prezioari buruz eta ondoren dauden hobariei buruz. Ez dakit gehiago sakondu nahi duzuen.



Joseba Vivanco Retes: ez, soilik guk zalantza bat geneukan, helarazi digutena, eta ez dakit idazkariak argitu dezakeen, hots, ea ordenantza fiskal honekin batera inpaktu ekonomikoari buruzko memoria bat gaineratu behar ote den. Legez gaineratu behar ote den, hemen ez dator eta, ikerketa ekonomiko eta finantzario bat. Horrenbestez, uste dugu...

Ascension Hormazabal Meabe: ezin izan dut begiratu, akordioak ere ez ditut egin.

Joseba Vivanco Retes: bada, guk abstentzioa emango dugu, baina uste dugu gai hau mahaiaren gainean utzi beharko litzatekeela, izan ere, txosten ekonomikoarekin gaineratzen ez bada, aurkatu egin daiteke lasai asko.

Alkatea: mahaiaren gainean utziko dugu.

Mahaiaren gainean geratzen da.

4.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUEN KONTRATUAREN ESLEIPENA ESLEITU GABE UZTEA.

“2018KO APIRILAREN 26AN EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA

Ikusirik 2018ko apirilaren 26an egindako Kontratazio Mahaiaren proposamena, Artziniegako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorra (HAPO) eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) idazteko zerbitzuen kontratua esleitzeko erata.

Ikusirik 2018ko otsailaren 14an egindako saioan “Formula bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa” izeneko «B» gutun-azala ireki zela eta Mahaiak ikusi zuela proposamenak ez zuela betetzen baldintzen pleguan eskaintzaren dimentsioei dagokien ezkatzen zena.

Adierazitakoa kontuan hartuz, Informazio Batzorde honek proposatzen dio Udalbatzari har dezala hurrengo, AKORDIOA:

Lehena.- MURUA ARQUITECTOS S.L.P. sozietateak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) eta Ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) idazteko aurkeztutako eskaintzan ukatzea, arrazoi hauek direla medio:

1.- *Administrazio-baldintzen Plegua ez onartzea gehieneko orrialde kopuruari dagokionez ezarritako muga gainditzeagatik.*

2.- *Kontuan hartzea Memorian Zalduondoko udalerria hainbat bidez agertzen denez (esate baterako, Memoriako 55. eta 58. orrialdeak), pentsa daiteke dokumentu horretan Artziniegako Udalerriarekin bat ez datozen datuak barnera daitezkeela, eta erredakzio-taldeak ez duela behar bezalako ardura izan hura eratzean.*

Bigarrena.- *Lizitazioa esleitu gabe uztea.*

Hirugarrena.- *Artziniegako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorra (HAPO) eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa (IEE) idazteko kontratazio-prozedura berri bat hastea”.*

Alkatea: badakizue, hiri antolamendurako plan orokorraren eraketa esleitzeko epea ireki genuela. Enpresa bakarra izan zen, eta beno, hemen informazio batzordearen irizpena agertzen da. Bertan lizitazioa esleitu gabe utzi eta beste prozedura bati ekiteko deklarazioa proposatzen da, izan ere, Administrazio Baldintzen Plegua ez duela bete uste da, hura izanik onartu zena.



Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5.- FORU TITULARTASUNEN ERREPIDEETAN IRTEGUNEAK BERARIAZ DEBEKATZEA BARNERATZEKO EH BILDUREN MOZIOA.

Alkatea: puntu honetan esan Alderdi Popular taldeak ere EAJ taldearekin mozio bat aurkeztu duela eta, beno, ez dakit lehendabizi zuek mozioa aipatu nahi ote duzuen, argudiatu, irakurri...

Joseba Vivanco Retes: bai. *“Duela zenbait urtetik irtengune izenekoek hala osasun garraioan nola larrialdietakoan duten eragin negatiboei buruzko ikerketak egiten dira.*

Abiadura kontrolatzeko neurri modura elementu mota honen erabilera hedatua kaskarra izan dela frogatu da eta, halere, lur-berdinuaren uniformetasuna aldatzeak arrisku gehigarria dakar, ibilgailuen, batez ere astunen kasuan, segurtasuneko funtsezko alde mekanikoen aurkako arrisku larria ekar dezakeena.

Erakunde publiko askoren ikerketa eta iritzi publikoak daude, Europar batzordearena tartean, elementu mota horren erabilera gomendagarria ez izatea eragiten dutenak.

Mozioa:

1) Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Sailari dei egitea hiru hilabeteko epean Batzar Nagusi hauen aurrean Errepideen Foru Arauaren aldaketa aurkez dezan, elementu horien debekua berariaz barneratuz.

2) Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Sailari dei egitea elementu hauek kentzeko esku-hartze plan bat aurkez dezan haiek onartu eta urtebeteko epean.

3) Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Sailari eskaera hauek jakinaraztea”.

Mozioaren argudioa da, pixka bat, kasu honetan, Artziniegako Udaletik, hasiera batean irtenguneen kontuarekin sentsibilizatuta dagoen udalerrri bat izaki, dei egitea Arabako Aldundiari, kasu honetan Azpiegitura Sailari, bada, bere garaian obren Foru Planetik irtenguneak kokatzeko laguntzak baztertzeko urratsa eman zuelarik, baina kasu honetan urrats bat gehiago eman nahi da, eta Aldundiak berak, errepideen Foru arauaren bidez, Arabako udalerrri, edo Administrazio Batzar, Kontzeju edo Tokiko Erakunde bakar batean errepide edo kaleetan irtenguneak jartzea debeka dezan eta, bide batez, dagoeneko ipinita daudenak kentzeko esku-hartze plan bat ezar dezan. Horrenbestez, kasu zehatz honetan, mozioa Arabako Foru Aldundira dago zuzendua. Halaber, gaia ekarri dugunez, aukera baliatu nahi dut adierazteko ekainaren 8an urtebete betetzen dela Artziniegako Udalbatzak irtenguneen gaiari buruzko baterako mozio bat onartu zuela. Mozio horren helburu nagusia zen Aldundiaren eskuetan uztea, Aldundiak ere hala eskatu baitzion Artziniegako Udalari, kasu honetan Bizkaiko Aldundiari, Gordexola zeharkatzen duten irtenguneak kentzeko gaia kudeatu eta negoziatzeko ahalmena. Urtebete igaroko da, urtebete egingo du ia premiaz eta Aldundiak berak hala eskatuta hartu genuen mozio hartatik, eta mingarriena zera da, Aldundiaren aldetik urtebetean ez dugula jakinarazpen bakarria ere izan, ez



dugu berriz ikusi Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Diputatua Artziniegan. Ez dugu jakinarazpen bakarria izan, ez ofiziala behintzat, eta Udal modura ez dugu hartaz beste ezer jakin. Jakin dugun bakarria da Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontuan partida bat onartu zuela, eta Gordexolak gero esan zuen ez zuela partida haren berririk. Bizkaian ez dakit daukaten, hor geratu da, ez dugu beste ezer jakin, eta ez dakigu Arabako eta Bizkaiko Aldundien artean elkarriketarik badagoen, zerbait aurreratu den, ezertxo ere ez. Eta hori, gure taldearentzat bederen, etsigarri samarra da, ezta? iaz Arabako Foru Aldundia tartean sartzeko gai hau guztiau bizkortzeko izan genituen bilkura eta presekin, Arabako Aldundia tartean sartu zen, nik uste dut nahiko ongi, irmotasunez, baina kontua da urtebete igaro dela eta ez dugula gertatu zenaren inguruan ezer jakin. Horrenbestez, mozio hau, era berean, Aldundia mugiarazteko ere bada, hots, ez dadila geratu hartan, mugi dadila, azken batean kontua ez baita inork dominak ipintzea, edo guztiok dominak ipin ditzagun, saria izan behar zuenak izan du saria dagoeneko, baina dominez gain, hori ongi dagoen arren, bizkortu eta lan egin beharko da, eta urtebete daramagu eta hemen ofizialki ez dugu ezertxo ere jakin.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, nik Joseba esaten ari dena onartu egingo dut. EAJ eta PP taldeek beste bat aurkeztuko dute, eta osagarriak direla uste dut. Niri gustatuko litzaidake hiru taldeen artean bat atera izana, guztia jasoko zuena. Zuk deialdia egiten diozu aldundiari esku har dezan Kontzejuen, Administrazio Batzar eta Udalen gainean. Hori Arabako Foru Aldundiak sekula ezingo du egin. Arabako Foru Aldundiak foru errepideei buruzko arau bat egin dezake, bere eskumenekoak baitira. Horregatik, nik gaur goizean, Gobernu Batzordean Unairi helarazi diot akordioa administrazio guztietara hedatzeko premia, izan ere, Udalen, Administrazio Batzarren eta Kontzejuen arazoa da Eudelek berezko araudia egin duela. Arabako Foru Aldundia Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitz egiten ari da, dagoeneko badu arau bat, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, uste eta ulertzen dut, bere araua egingo du. Eta ondoren Eusko Jaurlaritzak dugu, bere araua izango duena. Eta Eusko Jaurlaritzak zer esan asko dauka, izan ere, azken batean osasun arloko eskumena Eusko Jaurlaritzaren eskumena da. Eta anbulantzia hori Araba, Gipuzkoa edo Bizkaiko foru errepideetatik igarotzen denean, bada, irtengune horiek zeharkatu beharko ditu. Horrenbestez, zer esan asko izango du, horregatik eskatu dut nik gaur goizean egin zedila, hiru administrazioentzako idatzi bat izan zedila, eta administrazio guztiek araudi bera egin dezatela ez gaitezen aurkitu Udal batek altuera jakin batekoa egiten duela, Aldundiek ziurrenera bide-arautik kentzen dituztela, eta Eusko Jaurlaritzak, bada, ez dakit zer egingo duen. Nik uste dut hori dela normalena eta funtsezkoena da administrazio guztiek jaramon egitea larrialdietatik eta beste zerbitzu batzuetatik egiten diren gomendioei, eta araua administrazio guztientzat berdina izatea. Horregatik diot, nik zuena onartu egingo dut, baina guk aurkezten dugunaren alde ere bozkaturiko dut, non erkidego guztiei dei egiten baitiegu guztien artean neurri hori har dezaten, bestela, zuk Aldundiari eskatzen diozuna ezingo du egin, Joseba. Bizkaiko Aldundiak ezingo dio esan Gordexolako Udalari, bere errepidearen barnean, bere eskumenaren barnean, kentzeko ala ez kentzeko. Eudel izan beharko da nola, noiz eta zein modutan egin behar den adierazten duena.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina kasu honetan mozioaren helburua apur bat zen, zuk orokortzea aipatzen duzu, baina azken finean orokortzeetan galdu egiten gara eta beste administrazio batzuetan galdu egiten gara. Azken batean daukaguna Arabako Foru Aldundia da, eta ikusi dugu duela urtebetera arte gai honetan sartu zela eta sentsibilizatu, bada tira, ildo horretan urratsak ematen jarraitu dezan eskatu behar diogu. Izan ere, azken batean Arabako Foru Aldundiak lasai asko egin dezake errepideen bere foru araua irtenguneak koka daitezela debekatuz, dagoeneko ipinita daudenak kentzeko plan bat egin dezake, hori baita hemen eskatzen dena, eta kito. Bizkaiak berea egingo du, Gipuzkoak berea egingo du, zuk diozun moduan, Eusko Jaurlaritzak, Eudelek berea egingo dute, baina guk daukaguna ordea Arabako Aldundia da eta azken batean bestearna joaten bagara, eta bestearna... Eta Eudel, eta badakigu gero Eudelek zein arau egiten duen, non Alkate gehienak ez dauden gaiarekin sentsibilizatuta, eta badakigu azken batean araua guztiontzako komenigarria dela, dagoen bezala



utziko dugu, ikusiko duzu zer egin... Eta azken finean, beti Eudelera jotzen dugu, beti Eudelera, baina Eudel ez da inolako edabea. Eudelek bota egin du eta guztion artean konpontzen da, orokortu egiten da, eta tira aurrera. Orduan, kasu honetan Aldundira dago zuzendua.

Joseba Elejalde Ribacoba: Joseba esaten dizut irtenguneen % 80 edo %80 baino gehiago hirigunetan kokatuta daudela. Arazoa, egiaz, hirigunetan daukagu, ez foru errepideetan. Foru errepideren batean ere baditugu irtenguneak, baina egiaz arazoa hirigunetan dago, bertan baitaude irtenguneen % 80. Artziniegako herritarrok eta Bilborekin lotzen den errepidean ibiltzen den orok jasan eta pairatzen ditugun 19 irtenguneak hirigune batetik igarotzen dira une honetan, gustatu ala ez. Eta irtengune gehienak hirigunetan ipintzen dira. Beste gauza bat da eta ulertzen dut zuk niri esatea “Joseba, Diputazioari adierazi behar zaio foru errepidetan irtenguneak kentzeko mugikortasun arloko foru araua ken dezala”, eta nik txalotu egiten zaitut, eta bozkatu egingo zaitut esaten dudan moduan, baiezkoa botoa emango dizut, baina nire ustez Udal honetatik batez ere Eudeli eta administrazio guztiei dei egin behar diegu araua guztiontzat berdina izan dadin, hau da, ez dadin izan Eudel arazo handiena duelako eta sentsibilizazio gutxien duelako, nik ez dut uste Alkateek sentsibilizazio gutxiago dutenik, baizik eta irtengune gehiago dituztela, eta une honetan horiek egokitu edo kentzea ziurrenik ez daukaten zenbateko ekonomikoa suposatuko die. Horregatik, une honetan Eudelek duen araua ez da Bizkaiak izan dezakeena bezain murrizgarria, eta irtenguneak bi zentimetro altuagoak dira Bizkaiko arauan adierazitakoa baino. Horregatik esaten dizut administrazioei dei egin behar zaiela, kasu honetan Eudeli, hura baita Tokiko Erakundeak batzen dituen erakundea, arazoa egiaz duena, dei egin behar zaio mugitu eta bizkortu dadin arau hori berdina izan dadin guztiontzat eta urratsak eman daitezen Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmenak eginez erkidegoko Udal guztiak edo ia Udal guztiak inbaditzen dituzten trafikoa baretzeko elementu horiek kentzen joan eta trafikoa baretzeko beste neurri batzuk erabil daitezen, pintada bidez edo dena delakoa erabiliz, milaka modu daude, azken batean abiadura murrizteko.

Inmaculada Vivanco Retes: uste dut hemen azaldu denaren harira, eta orain arte gai honetan guztiok batera egiteko defendatu dugun jarrera mantenduz, uste dut defenditu daitezkeela, beno, ez da beste mozioaren testua irakurri, asmoa berdina da, baina herri-administrazio guztiei luzatzen zaie deialdia, izan ere, nire ustez, kasu honetan, eta Josebak azaldu duen moduan, Arabako Foru Aldundiak, Azpiegitura Sailak, lan egin du, eta inori eraso egiteko asmorik gabe, nire ustez, gai honetan gehien mugitu dena bera izan da, izan ere, foru planaren barruan dagoeneko ez da onartzen irtenguneak ezartzeko eskaerarik. Foru arautik ken dezatela eskatzea? Bada, oso ongi, baina zalantza geratzen zait, baina nik dakidanez eta elkartuta izan garenean, foru arauak foru titulartasuneko errepidetan du eragina. Errepideetan, herri titulartasunekoak diren bideetan Udal bakoitzak du eskumena, eta hor dago arazoa. Eta Eudelek egin dezake gomendio bat, arau bat, gomendio bat Udalei nire ustez, Aldundiarekin hiru taldeak izan ditugun bilkuretan adierazi zaigunez, gutxi gorabehera, hiru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzarekin batera hainbat neurri adostu dituzte araua berdina izan zedin hiru lurraldeetan eta Eusko Jaurlaritzak araudi bera izan zezan, baina Tokiko Erakundeekin zegoen arazo handiena, izan ere, udalerrri bakoitzak bere bideen gaineko eskumena dauka. Horrenbestez, horregatik jo behar da herri-administrazioetara deialdia luzatzera, eta ez orokortzeko asmoarekin, baizik eta Tokiko Erakundeak eta administrazio guztiak barneratu daitezen, gai honetan eskumena duen administrazio oro, eta dei egin erakunde horiei guztiei beren eskumeneko bideetan elementu horiek kentzen joan daitezen, hori baita proposatzen dena. Mozioaren goiburua antzekoa da, eta esaten dizut hau guztiok batera joatearen ildotik doala, eta ondoren hauek dira beste mozio horretako puntuak: “

1) *Eskumeneko Herri-administrazioei dei egitea beren eremuan dagozkion arauzko aldaketak egin ditzaten, trafikoa baretzeko neurriak bateratu eta irtenguneak eta lur-berdinketaren uniformetasuna aldatzea dakarten elementuak berariaz debekatzeko, kalterik eragin gabe helburu berak lortzen dituzten aukerak daudelako.*



2) *Dei egitea eskumeneko erakundeek pixkanaka elementu horiek ken ditzaten beren eskumeneko bideetatik.*

3) *Akordio honen berri ematea administrazio guztiei, hala Aldundi, nola Eusko Jaurlaritza eta Eudeli, ondoren hark Udalei jakinarazteko”.*

Joseba Vivanco Retes: guk, besterik gabe, berriro adierazi mozioa Aldundira zuzenduta dagoela, izan ere, azken batean uste dugu hura irekitzea, hedatzea, ia itsasoan galtzearen parekoa dela, eta Aldundiak baduela oraindik marjina gauzak egiteko, izan debekuak, edo are, obretako edo obra txikietako, edo dena delako foru planaren arauetan etorkizunean egin ditzakeen aldaketen bidez, esate baterako, udalerrietako errepideetan irtenguneen ordez bestelako elementu baregarri batzuk ipintzeko laguntzak barneratzea, hori lasai asko egin baitezake.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik hori, egia esan, Joseba, bata zein bestea barneratu beharko zenukete. Gaur goizean bilkura izan dugunean, akordio azkar batera iristen saiatzea, azken batean bateratu izan bagenitu gaur hemen aurkeztu ditugun bi idatzi hauek, pare bat buelta eman izan bagenizkio, zu orain esaten ari zarena hirugarren edo laugarren puntu modura sartu ahal izango zen, herri-administrazioei deialdia luzatzea zentzuzko denbora batean osasunerako eta garraiorako, beno guztiontzako, kaltegarriak diren trafikoa baretzeko elementu horiek kentzen hasteko modua eta era ipin dezaten, nik uste dut azken batean guztion artean lortuko genukeela, bakoitzak bere ekarpenak eginez, mozio hau argiagoa izan zedila, edo behintzat osatuagoa. Azken batean, zuk oraintxe bertan beste ñabardura bat egin duzu, azken batean herri-administrazioek Euskadiko ia udalerrri guztietan dauden irtengune horiek, trafikoa baretzeko irtenbide horiek, kentzen joateko dirua ipintzeko konpromisoa hartzea eragingo duena. Nik biak onartuko ditut, uste dut bigarrenak hiru administrazioei egiten diela dei, nire ustez hori da garrantzitsuena, izan ere, azken batean guztiei deialdia luzatzea da irizpideak batera ditzaten, baina era berean ados nago Arabako Foru Aldundiak bere foru arautik kentzearekin. Hori ere bigarrenean jasotzen da, gurean.

Alkatea: beno, bada haien artean bateraezinak ez diren bi mozio direnez, lehen mozioaren bozketari ekingo diogu, EH-Bilduk aurkeztutakoari.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

Alkatea: eta ondoren bigarrena.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

6.- 2018KO LEHEN HIRUHILEKOKO “ORDAINKETARAKO BATEZ BESTEKO EPEALDIA” TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Alkatea: 15 egunetan dagoena, ezta?, 15,98. Zerbait esan nahi duzue?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

7.- 2018KO LEHEN HIRUHILEKOKO AURREKONTU-INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK JAKINARAZTEA.

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 41 eta 42, 47 eta 48, 61 eta 62 Dekretuak eta ondoren 68-83 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: harritu egin nau Alkatetzako dekretuetan diru-laguntza eskaera bat ikusteak, uste dut kultur jardunetarako dela, Arabako Aldundiari 4.000 euroko zenbatekoa eskatzen zitzaien Artziarte programarako. Eta ez dakit, ez genekien ongi zeri buruzkoa zen.

Alkatea: beno, bada, Aldundiak urtero kultur jardunetarako ateratzen duen diru-laguntza da.

Arkaitz San Jose Martinez: Eta Artziarte izena du beti?

Alkatea: beno, diru-laguntzaren eskaera aurkezteko ipini zaion izena da.

Arkaitz San Jose Martinez: Baina programa zehatz bati buruzkoa da?

Alkatea: ez, ez da programa zehatz bati buruzkoa. Ekitaldiko kultur plangintzaren barnean sartzen diren zenbait ekintza dira eta aurkezten direnak dira Aldundiak zatiren bat diruz lagun dezakeen ala ez ikusteko.

Arkaitz San Jose Martinez: hau da, beste urte batzuetan ere egiten diren jarduerak dira.

Alkatea: bai.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).



9.- UDAL KUDEAKETAREN KONTROLA.

• Iñigo Gomez Unzueta: ezer baino lehen, azken osoko bilkurari buruz zenbait kontu esateko. Pilotalekuko kristalei dagokionez, obrak maiatzaren 15ean hasi ahal izatea aurreikusten da, gehienez hiru asteko epe batekin, espero dezagun bete ahal izatea. Garai plazako iturriari dagokionez, iturria dagoeneko eskatuta dago. Ez dakigun zein den iturriaren entrega-epea. Espaloien azterketari dagokionez, oraindik arkitekto teknikoak balioesteko dago, brigadak zuzenean egin ote dezakeen ala kanpoko enpresa bati agindu behar zaion hobekuntzak egitea. Ondoren, era berean, Lastrako zubiari dagokionez, halaxe da, guk harriak izanda betelanerako zein material erabili behar dugun ikusiko dugu, harriak berriro ipini ahal izateko, zein material mota jarri behar den. Eta ondoren, SR-1 zonaldeari dagokionez, dagoeneko badugu konkurtso-administrariaren jakinarazpen bat. Bertan esaten zaigunez, zailtasunak izango ditugu ordaintzeke dauden zenbatekoak kobratzeko, ezinezkoa, eta auzotarrekin bilkura bat egin beharko dugu, eta tira, ea maiatzean egin dezakegun. Uste dut horiek zirela azken osoko bilkuran aipatu genituen gaiak. Zerbait galdetu nahi baduzue.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, espaloietako hondamenen inguruan ez dizut deus esango, izan ere, uste dut osoko bilkuretan uste dut nahikoa hitz egin dudala horri buruz, baina...

Alkatea: eta gainera esan dizut oraindik ez dagoela.

Unai Gotxi Kastrexana: horrexegatik. Utz dezagun denbora pixka bat igaro arte. Iturrikoari buruz, ba al dago asmorik idatzia sartu zuen erabiltzaileari erantzuteko?

Alkatea: bada, erantzun ahal diogu. Iturria daukagun unean erantzun diezaiokegu esanez "badaukagu, jarri egingo dugu".

Unai Gotxi Kastrexana: besterik ez bada ere atzerapena azaltzeko. Ez atzerapena soilik ipintzean, baizik eta erantzutean izandako atzerapena ere bai. Besterik ez bada ere ipintzeko asmoa zenuela esateko.

• Unai Gotxi Kastrexana: beste kontutxo bat. Egun hauetan kaleetan zenbait kexa entzun dira Barrenkaleko kutxatiletako gomekin lotuta, gastatuta daude eta, edo ez daude ongi, eta auto bat igarotzen den bakoitzean zarata handiegia ateratzen dute. Egia esan zarata handi samarra da. Izan ere, kutxatila asko egoteaz gain, zarata handia ateratzen dute.

Alkatea: uste dut goma horiek 2015ean instalatu zirela. Gomak ipini ziren, gastatu egingo ziren, berrikusi egin beharko da, eta litekeena da batzuk berriro ipini beharra.

• Unai Gotxi Kastrexana: aurreko osoko bilkuran espaloietako obrei buruz ere galdetu nizun, ez dakit gogoan duzun, Moyua dagoeneko itzuli zela iaz amaitzeke utzi zituen gauzak bukatzera, eta epea galdetu nizun, noiz amaitzea aurreikusten ote zen. Aldundian galdetuko zenuela esan zenidan.

Alkatea: bi aste inguru eman dituzte amaitzeko. Joan den astean bi aste eman zezaketela esan zuten.

Unai Gotxi Kastrexana: ados, bikain.

• Joseba Vivanco Retes: nire aldetik zenbait gauza. Lehenak zerarekin du zerikusia, ez dakit EAJ taldeari egindako instantzia bat den ala zer, aurrez mozioaren inguruan izan dugun eztabaidaren kontuarekin, gure taldetik EAJ taldea adoretzen dugu ekimena hartu eta mozioak aurkez ditzan. Esan nahi dugu, azken batean, ikusten dugula, EH-Bildu udal taldea dela normalean edo aldizka mozioak aurkezten dituen arrazoi ezberdinen inguruan, esan dezagun, udalaz apartekoak izan zein ez, eta transakzioa egiteko EAJ taldearen proposamenarekin heltzen gara, zuzentzekoa, alternatiba bat aurkeztekoa. Orduan, beno, gure taldetik EAJ taldea ere gonbidatu nahi dugu ekimena har dezan berak ere eta bere kabuz aurkez ditzan mozioak guk ere eztabaidatu ahal izateko, izan ere, uste dut ondo legokeela eta aberasgarria litzatekeela, eta ez



itxarotea beti EH-Bildu taldea izan dadin mozioak aurkezten dituen ondoren aldaketak egiteko, mozio horiek murrizteko, eta adostasun baterako lan egiteko azken batean, adostasuna ondo dago baina, azken finean, badirudi beti akordio horiek murrizten egon behar dugula adostasun horietara iritsi ahal izateko. Aipamen bat baino ez zen, EAJ taldeari gonbite hori luzatzea.

Alkatea: ongi iruditzen zait baina kasu honetan normalean ia egiten duguna beste administrazio batzuetan ematen diren eztabaidak errepikatzea da, esate baterako, Batzar Nagusietan edo Eusko Legebiltzarrean egon daitekeen moduan, eta egia esatera ohiko jardunean oposizioko taldeak dira normalean mozioak aurkezten dituztenak. Baina mila esker oharragatik.

Joseba Vivanco Retes: Gonbite bat.

- Joseba Vivanco Retes: gauza bat bai galdetu nahi nuen, Alkatetzako dekretuen aurretik izan dira, eta gustatuko litzaidake Alkateak azalduko baligu, gure ustez, baimenak ematean erabiltzen den irizpide ezberdina, bi dekretu dira, batean Arespalditzako Udalari baimena ematen zaio San Prudentzioko festetan agertokia laga dezan, ez dago inolako arazorik, baina arreta ematen digu Gure Esku Dagotik eskaera egiten dela, are aurrez, Arespalditzako Udalak baino egun batzuk lehenago, Aiarakoak, txosna lagatzeko eskatzen da, eta ukatu egiten zaiola esaten zaio, ez da baimentzen Gure Esku Dagori San Prudentzio jaietan bertan txosna onartzea, izan ere, soilik ezohiko kasuetan lagatzen da tokiko erakundeetarako eta betiere udal langileen lanarekin bateragarri bada. Gure galdera zera da, hasiera batean, ez gabilta oker esaten badugu ez dagoela inolako araudirik ezta idatzirik txosna, agertokia, nori lagatzea ala nori ez laga adieraztekoa. Hasiera batean uste dugu ez dagoela ezer idatzita. Bigarrenik, hemen esaten da txosna tokiko erakundeei soilik lagatzen zaiela ezohiko kasuetan, ulertzen dugu hor sartzen direla Udalak, administrazioak, Aldundia eta abar. Gaizki oroitzen ez badut, ia urtero, ez dakit urtero izango den, agertokia esate baterako, ez txosna, baina bai agertokia, azken batean ez dugu uste ezberdintasunik dagoenik, laga egiten da esate baterako Araba Euskaraz ospatzeko, eta pentsatzen dut erakunde pribatu batek eskatzen duela, Arabako Ikastolen Federazioa izango dena, eta abar. Hau da, ez da inolako erakundea. Duela zenbait urte txosna Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari laga zitzaion, uste dut bere urteurrena ospatzen zuela eta, eta hain zuzen Arespalditzako festetarako laga zen, San Prudentzioko festetan txosna ipini behar zutela eta, eta onartu egin zitzaion. Esan nahi dudana da, alde batetik ez dugu uste idatzizko legerik egongo denik nori laga eta nori ez, eta arrazoiak adierazteko. Hori esanda, deigarria egiten zaiguna eta galdetu nahi genuena da, ea zergatik Arespalditzako Udalari udal agertokia lagatzeko ez zaion esaten "eta betiere, udal langileen lanekin bateragarri bada" eta Gure Esku Dagori bai. Zergatik ez zaion inolako oztoporik ipintzen Arespalditzako Udalari, izan ere, egun horietan udal langileak oso lanpetuta egon daitezke Artziniegan ez txosna soilik, agertokia ere ez ipintzeko moduan. Baina Arespalditzako Udalari ez zaio deus esaten. Aitzitik, Gure Esku Dagori... izan Gure Esku Dago, izan Gurasoen Elkartea, edo izan txirringularitza fundazioa. Udal langileen arabera dela hori, haiek direlako ipini behar dutenak, hara joan eta ipini, egin dezaketen ala ez, horren arabera. Orduan, irizpideari dagokionez dagoen aldea azaltzea nahi dugu.

Alkatea: ez, normalean Arespalditzako Udalari kioskoa uzten zaio, eta horrek behartzen ditu udal langileak Arespalditzara joatea, haiek ere bertan izan behar dira, agertokiaren instalazioan Aiarako Udaleko langileen laguntza ere izaten dute. Txosnaren kasuan ere udal langileak joan behar dira bertara eta txosna muntatu behar dute. Kontua zen San Prudentzioko festetan Udalak gauza bat muntatu behar zuela eta beste bat, bi gauzak muntatu behar zituen. Hori da arrazoi nagusia. Eta egia da txosna ez dela normalean hala eta horrela uzten den zerbait. Agertokia bai, maizago, baina txosna ez horrenbeste, eta txosnaren kasuan udal langileak dira beti muntatzera joaten direnak. Hori da arrazoa.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina ez da zergatia azaltzen, hau da, berriro diot ez dagoela ezer idatzita nori uzten zaion eta nori ez eta zergatik esanez, izan ere, Gure Esku Dagori ez onartzeari



dagokionez, soilik esatearekin txosna soilik Tokiko Erakundeei uzten zaiela ezohiko kasuetan balioko luke. Baina ez dugu ulertzen zergatik gaineratzen den “udal langileen lanekin bateragarri izan badaiteke” hori. Berrit diot, horrek Arespalditzako agertokirako ere balio du, eta Udalari ez zaio inolako oztoporik ipintzen, eta ez zaio ezer gaineratzen, ezta ñabardura ere, eta kasu honetan txosnarekin bai, orduan hori da ulertzen ez duguna.

Alkatea: Arespalditzako Udalari ahal badugu egiten diogu, eta bestela, ezin da. Kasu bera da.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina hemen ez da ezer esaten, eta beste kasuan bai. Horretara noa.

Alkatea: ez da ipini baina jakina dena mugatuta dago.

Joseba Vivanco Retes: baina bestean bai. Esan nahi dudana da ea izan daitekeen irizpideren bat, idatziz ez bada, baina irizpideren bat hartu nori utzi eta nori ez erabakitzeke, izan ere, tokiko erakundeez hitz egiten ari gara, baina gero ez dakigu elkarteei uzten ote zaien ala ez, edo zer. Argitu dadila, eta bestea ere azkenean ez didazu argitu, baina tira.

- Joseba Vivanco Retes: beste kontu bat, Ura Uraren Euskal Agentziaz iritsi den txostenarekin dago lotuta, Udalari isun bat ezarriz Barretagurenen egin zen pasabide kanadiarra dela medio. Azkenean 600 edo 800 euroko isuna, ez dut gogoan, eta errekarren gainean ezarri zen pasabide kanadiarra eraitsi. Urak isuna ipintzea, Urak eraisteko agindua ematea, ez da kontu berria. Ez duguna ulertzen da zer-nola lotzen den guztia, izan ere, Urari ez zaio baimenik eskatu. Hau da, badakigu Urak nola funtzionatzen duen, bakarra ere ez du barkatzen, oraindik gaurkotasunean dugu Barcenako aparkalekuarekin gertatu zena, non Ura ere bertan sartu zen ez zitzaiolako kontsulta egin, beno, kontsulta egin zitzaion baina azkenean beharpenarekin etorri zen, ez baitzen kontuan izan Aldundiak adierazten duela erreperidera arte ez dakit bost metro ez ote diren utzi behar aparkaleku hori egon dadin, aparkalekua egin zen ia erreperidera arte, eta atzera egin behar izan zen Aldundia etorri eta hori ezin zitekeela egin esan zuelako, ez zela hori hitz egin. Eta orain pasabide kanadiar bat egiten hasten gara non Udala dagoen, pentsatzen dut Udaleko zerbitzu teknikoak egongo direla, eta Aldundia ere tartean da mendiko zerbitzuaren bidez, basozainarekin, eta inork ez dio eskatzen, Ura zer-nolakoa den jakinda, inork ez dio eskatzen baimena Urari errekarren gainean pasabide kanadiar bat ezartzeko. Eta badirudi Uraren iritzi Eskorialeko obra egin dugula han eta pasabide kanadiar bat da. Ez dut ulertzen ordea. Azken batean...

Alkatea: bada, kasu honetan ez da baimena eskatu errekarrean.

Joseba Vivanco Retes: ez dut ulertzen nola udal zerbitzuek eta Aldundiak...

Alkatea: ez dut espediente oso ongi ezagutzen, ez dut gogoan oraintxe bertan espediente, baina nik uste dut alegazioak bidali zirela Udalaren aldetik eta Urak ezetsi egin ditu.

Joseba Vivanco Retes: gainera, 800 edo 600 euroko multa erabaki da eta egindakoa eraitea, berriro kentzea.

Alkatea: legeztatzen ez bada.

Joseba Vivanco Retes: pasabide kanadiarra aipatzen du, alboan aparkaleku bat egin dela aipatzen du, hesi bat ipini dela aipatzen du, laburbilduz ipini den guztia gaizki dagoela dio. Baina jatorria zera da, buruan sartzen ez zaiguna da Urari baimena eskatu ez izana Urak deus barkatzen ez duenean. Eta ez basozainak, ez udal zerbitzu teknikoek, ezin dut ulertu ordea.

Alkatea: bada, kasu horretan ez zen eskatu. Beste baterako kontuan izango da.

Joseba Vivanco Retes: bada ezer ez, eskudirutan ordaintzera, eta...

Alkatea: eta alegazioak ez dituzte kontuan izan.

Joseba Vivanco Retes: horrela doakigu.

Joseba Elejalde Ribacoba: egia esan Udaleko zerbitzu teknikoek..., basozaina da azken finean gai guztia izapidetzen duena, Aldundiarekin dauden laguntzena nahiz pasabideen kokapena, eta Aldundiak izan beharko luke auzia Urarekin, gertatzen dena da berrerorlea dela, ezta? hau guztiau nahiko maiz gertatzen zaigula.



Joseba Vivanco Retes: bai, baina azkenean isuna Udalari dihoakio eta...

Alkatea: edozein kasutan, nik berriro diot, kasu honetan ez zen baimenik eskatu eta Urak alegazioak ezetsi egin ditu.

- Joseba Vivanco Retes: azken gaia. Joan den egunean idatzi bat erregistratu genuen Udalean Gaztelekuko obran udaletxe zaharrean agertu diren itoginak direla eta. Bigarren solairuan agertu diren itoginak direla eta. Egia esan hau jadanik..., obra horrekin izan dugun guztiarekin, teilatua altxatu, teillatu berria ipini, eta gainera orain iragazteak egotea, itoginak egotea. Ez dago ulertzerik. Obraren harrera ez dago eginda, egia da harrera ez dagoela, orduan zein urrats emango diren jakitearren. Pentsatzen dut enpresa izango dela beregain hartu beharko duena...

Alkatea: hori zerbitzu teknikoen eskuetan dago dagoeneko izapideak, erreklamazioa, hasteko.

Joseba Vivanco Retes: enpresa izango da beregain hartu beharko duena.

Alkatea: baietz uste dut. Enpresa eta obra-zuzendaritza.

Joseba Vivanco Retes: espero dezagun. Izan ere, eraikin horretan teillatu guztia eraberritu eta orain itoginak egotea. Orduan bada tira, konponduko dela espero dugu, obraren harrera ez baitago eta prest egon beharko da harrera egin ahal izateko.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik badut gauza bat, gainera El Correon zetorren gaur, abuztuan Basoarte eta Markijanako Hondakinen Uren Araztegiak lizitaziora ateratzen dira, eta 2023. urtean amaitzea aurreikusten da. Nik Artziniegako Hondakinen Uren Araztegiari buruz galdetu nahi nion Udal honi. Zein urtetarako. Niri irrigarria iruditzen zait, zuk El Correo irakurtzen duzu eta eta urte erdia daramagu Markijanako Hondakinen Uren Araztegiarekin eta Basoarteko Hondakinen Uren Araztegiarekin, hilabete edo hilabete eta erdi igarotzen den aldiro albiste bat dago. Zenbateko batez, dirua dagoeneko badagoela, eta gaur lizitaziora aterako dutela. Zuk Artziniegako Hondakinen Uren Araztegiara, edo Artziniegako kolektoreetara edo Eusko Jaurlaritzak Artziniegan egitea erabakitzen duenera begiratzen duzu eta berdinetan gaude. 2004tik 2018ra 14 urte igaro dira, eta 2013an beste behin errepikatu nuen osoko bilkura honetan, alkate ohiak proiektu liluragarri bat ekarri zigun. Nik zin egin nion berak kargua utziko zuela eta oraindik gauzatzeke egongo zela eta ni hemendik joango nintzela eta gauzatzeke ikusiko nuela, eta noan erritmora, hori gertatuko da.

Alkatea: joan den astean...

Joseba Elejalde Ribacoba: eta Udal honetatik ere ez dut ikusten dei egiten zaionik Eusko Jaurlaritzari Hondakinen Uren Araztegia gauzatzeari buruz erabaki bat har dezala adierazteko, edo Artziniega osoko hondakin-urak Guseñesera kolektore bidez eramateko egikaritzeari buruz, baldin eta hori bideragarri eta posible bada. Azkenean hemen linboan gaude, ez gaude ez Araban, ez Bizkaian, inorenak ez diren lurretan gaude, guk jarraitzen dugu gure hondakin-urak errekarra botatzen araztu gabe, eta ez da ezer gertatzen. Gero Urak dagokion isuna sartzen du eta guztiok pozik. Baina ez dira arazoak konpontzen. 14 urte eta gero Artziniegak Hondakinen Uren Araztegiarik gabe jarraitzen du, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren artean zeuden akordioak ezerezean geratu dira, Artziniegako Udalean ere ez dugu ezer egiten zein egoeratan gauden jakiteko, ezta gauza bat ala bestea noiz gauzatuko den jakiteko ere, edo zein diren aurreikuspenak jakiteko, izan ere, duela urtebete aurreikuspena 2021ekoa zen gero 2023 aipatu zuten eta goazen erritmora ziurrenera 2030erako oraindik zain egongo gara Eusko Jaurlaritzak esan diezagun Artziniegako urarentzat irtenbiderik onena zein den. Gustatuko litzaidake Iñigo...

Alkatea: joan den astean bilkura bat eskatu nuen Urako zuzendariarekin, Ernesto Martinez de Cabredorekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: Noizko eman dizute eguna?

Alkatea: oraindik ez didate egunik eman.

Arkaitz San Jose Martinez: niri gustatuko litzaidake gogoraraztea, buruz ari naiz hitz egiten,



baina ez dut uste urtebete baino gehiago igaro denik Aldundiaren proposamen zehatz bat genuenetik, non Artziniegan Hondakin Uren Araztegi bat egiteak ekonomikoki zer suposatzen duen balioesten zen. Udaletik zenbait alegazio egin ziren, eta are bere proposamenean esaten zen hori ekonomikoki errentagarriagoa zela Gueñesera kolektorea egitea baino. Ekonomikoki onuragarriagoa zen. Hainbat alegazio egin ziren, izan ere, kalkuluak ez zeudela ongi eginda uste zen eta Aldundira igorri ziren, baina berdin jarraitzen dugu. Eta haiek konpromisoa hartzen zuten, jakina esaten zuten Bizkaira arte joan nahi baduzu eta beste administrazio bat inplikatu nahi baduzu..., beraz, Aldundiak ematen zuen irtenbidea zen Artziniega Artziniegarentzat eta haiek finantzatzeko konpromisoa hartzen zuten. Baina hori esan zen “beno, galtzen jarraitzen dugu ordea... “ez dakit nork, baina eztabaida hau ez dakit ez ote den iritsi Artziniegako herritarren aldetik adieraztera Bizkaiarekin kolektorea egitea nahiago dutela Hondakin Uren Araztegia bera baino, baina tira, aurrez zegoen proiektu bat zenez, suposatzen dena hobea dela, izan ere, ulertzen da Hondakin Uren Araztegi bat mantentzea garestiagoa dela kolektore bat baino, bada, kolektorearen alde egiten zen eta Aldundiak egindako kalkuluak gaizki zeuden eta alegazioak egin ziren, baina horretaz ere ez dugu inolako jakinarazpenik jaso.

Alkatea: Aldundiak ez ditu alegazioak erantzun ordea. Eta han aurkezten ziren zenbakiak mahai gainean ipinita eta epe luzerakoak ziren, eta hobe zen kolektorearen alde egin araztegi bat izatea baino. Baina oraintxe bertan eskumena duena, sistema zein izango den erabaki beharko duena, Aldundiaren eta Uraren artean sinatu den hitzarmenaren barnean, Ura da gauzatu behar duena eta Artziniegari irtenbidea eman behar diona. Horregatik, hortik dator Ernesto Martinez de Cabredorekin izan nahi dudana bilkura.

Joseba Vivanco Retes: egia da Aldundiak oraindik ez dituela alegazioak erantzun, pentsatzen dut ez Artziniegako Udalarenak, ezta Araba osokoak ere, ez taldeena, ez beste Udal batzuenak, ez ezer. Oraindik ez ditu erantzun bere planari egindako alegazioak, plana zerako zen, iaz aurkeztu zuten, eta ustez Hondakin Uren Araztegia, Artziniegako Araztegia, Hondakin Uren Araztegia 2021ean hasiko zen eraikitzen, edo 2022an, baina noski, iaz aurkeztu zuten. Oraindik ez dituzte alegazioak erantzun, hau da, bota beste pare bat urte. Gure ustez, EH-Bildutik, argi utzi genuen, eta Udalean erregistratu genuen idatziz, baita alegazioak igorri zirenean ere jakin nahi genukeen lehendabiziko gauza araztegia edo Gueñesekin lotura egin arte pontoira arteko kolektorea erabaki aurretik zela jakitea non egongo ginen, ez gaur, baizik eta 5 urte horien buruan, edo 6 urteren ondoren edo 4 urte eta gero, edo diren urteak direla. Aiarako uren partzuergoaren barnean sartuko ote garen, Bizkaiko uren partzuergoan sartuko ote gaituzten, Aldundiak Arabarako aurkeztu nahi duen partzuergo horrekin azkenean han amaituko dugula aurreikusten ote duen, hau da, erabaki aurretik jakin nork kudeatuko duen gure ura, nork kudeatuko dituen gure zerbitzuak. Bizkaia izango ote den, hemen izango ote garen Aiaraldeako eskualdean, Aldundia izango ote den Gasteiztik. Orduan jakina, horri buruz oraindik inork ez du ezer esaten, inork ez du iritzi jakinik ematen, badirudi jende orok ideia apur bat duela baina inork ez du ezer esaten, orduan a ala b erabaki aurretik, honek hainbat eta besteak hainbat balio izatetik harago, ados, baina, nork kudeatuko du gure ura 5 edo la urte barru? Eta oraindik administrazio bakar batek ere ez du ezer esaten. Orduan, hori ere kontuan har dadila. Eta, are gehiago, planteatu genuen eztabaida hori ireki zedila, informazio hori, Artziniegako herritarren artean. Araztegi baten edo kanalizazio baten alde egin behar da, baina, Nork izango du etorkizunean kontsumitzen dugun uraren gaineko kontrola? Nork kobratuko digu? Guk jarraituko dugu Udal modura faktura pasatzen edo Bizkaiko uren partzuergoak pasako du ez dakit nondik? Edo Aiaraldeako partzuergoak pasako al du hemendik? Eta horri, momentuz, inork ez dio erantzunik ematen.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, hitz egiten ari zarenari buruz, Joseba, hainbat ñabardura ditut. Lehenik eta behin, Arabako Foru Aldundiak iaz esku-hartze egutegi hori aurkeztetik harago, ni Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean 2004an izan zen akordioa oroitzen ari nintzen, non Eusko Jaurlaritza baitzen Artziniegako Hondakin Uren Araztegia egin behar zuena. 2008-2012 beste esparru-akordio esparru bat egin zen eta Eusko Jaurlaritzak jarraitzen zuen izaten



Hondakin Uren Araztegi hori gauzatu behar zuena. Hemen, osoko bilkura honetan, esan zitzaigun proiektua gauzatu egingo zela, dirua Hondakin Uren Araztegi hori gauzatzeko zegoela, eta azkenean hemen ez dago dirurik, proiektua bai, aurkeztu egin baitziguten, baina argi dago dirua ez dagoela, eta egiteko gogorik ere ez. Nik uste dut Eusko Jaurlaritzaren aldetik utzikeria dagoela bere funtzioetan, edo bai behintzat 2004-2008 eta 2008-2012 bitartean Aldundiarekin hartutako esparru-akordioari dagokionez. Aipatu duzun partzuergo bakarrari buruz, daukagun arazoa zera da, partzuergo bakar bat egon behar bada, Aldundian hori planteatzen ari baitira Araba osorako, Gasteiz salbuetsita, hura Ambisak kudeatzen baitu, eta Ambisa da probintzia osoan uraren kudeaketaren % 80 kudeatzen duena, beraz arazo handi baten aurrean gaude. Izan ere, beren asmoa bada kudeatzaile bakar batek kudeatzea gainerako eskualde guztiak dugun hedadurarekin, nire ustez Ambisa izan beharko litzateke, baldin eta kudeatzaile bakar bat badago, Ambisa izan beharko litzateke Arabako ur guztiak kudeatzen dituen. Ildo horretatik Alderdi Popularrak egiten dituen planteamenduetako bat irakurriko dut, gaur goizean iritsi zaidana. Mozio bat aurkeztu du, non Arabako Batzar Nagusiari eta Arabako Foru Aldundiari deialdia luzatzen dien proposatzen duen urak kudeatzeko eredia ekarpen eta alegazioen prozesu batera eraman dezan, Arabako lurralde historikoko uraren kudeatzaile diren erakunde ezberdinetatik planteatzea daitezkeen ekimenak jasoz, eta horiek proposatutako eredia gaineratzea balioetsi dadin. Arabako Batzar Nagusiek dei egiten diete Arabako Foru Aldundiari eredia planteatuta dagoen moduan aintzatetsi dezan, horretarako Arabako Batzar Nagusietako ekarpen, partaidetza eta adostasun gehiengoa izanik. Horretarako, Foru Gobernuak epe bat ipiniko du batzarreko talde guztiek beren ekarpenak aurkez ditzaten, eztabaidatu egingo direnak eta bozkatu Arabako Batzar Nagusiaren dagokion batzordean. Araban uste dut zortzi edo hamar entitate daudela ura kudeatzen dutenak, gutxienez.

Aizu Iñigo: Araban? Araban berrehundik gora daude.

Joseba Elejalde Ribacoba: azken finean hori bideraezina da. Azken batean nik, herritar eta politikari modura, ulertzen dut Ambisa izan beharko litzatekeela, % 80 kudeatzen duena izaki, populazioa kontuan hartuz, hura baita Gasteizko ur guztia kudeatzen duena, eta Arabako ur guztia kudeatu beharko lukeena. Alde batera utziz, gu, gauden zonaldean egonik, agian Bilbo handira bideratu beharko garela, baina nire ustez Ambisa izan beharko litzateke zonalde guztiko ura kudeatu beharko lukeena.

Alkatea: oker ez banago, planaren aurrean aurkeztu ziren alegazio guztien barnean, horietako batean Ambisa Arabako partzuergo horretara gaineratzeko premia aipatzen zen.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ambisak ezetz dio ordea. Ambisak bere garaian ezetz esaten zuen.

Alkatea: baina Arabako lurralderako partzuergo baten planteamenduan, jakina, Ambisa izan behar da parte hartzen duena. Ambisa baita partzuergo horri indarra ematen diona nagusiki, gainerakoan oro lurralde handia duen partzuergo bat geratzen baita, oso biztanle gutxirekin. Baina tira, Ernesto Martinez de Cabredorekin bilkura izan bezain laster esango dizuet zerbait.

Joseba Vivanco Retes: edozein kasutan, era berean, Artziniegako hondakin ur guztien kudeaketaz aparte, Artziniega pantanotik depositura arteko kanalizazioaren zain ere badago, eta ez dakit Urak edo Eusko Jaurlaritzak zein plan daukaten. Proiektu hori ere duela zenbait urtekoa da, urte batzuk dagoeneko, non Eusko Jaurlaritzak guztia aurreikusita zuen kanalizazio berri hori egiteko Angostinako pantanotik depositura arte, eta hor geratu da. Eta hemerrotekara jotzen badu inork hauteskunde garaia iristean halako adierazpenak ikus ditzake "ez, ez, legealdi honetan egingo da", Ahaldun Nagusiari aurkeztzen zioten batzuen aldetik. "Legealdi honetan egingo da", baina hor jarraitzen du, eta dagoeneko ez dakigu egingo ote den, edo zein plan dauden.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren zortziak eta bost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.